

# hiruka

206. zenbakia  
2024ko apirila



URIBE KOSTA

# Euskaraz loratu

“

Politikarekiko  
konfidantza  
berritzeko  
aukera  
daukazu.

ALDAKETA  
DA ERRAIN\*

Bozkatu

ehbildu

# Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Banketxe-bulegoen gainbehera
- 10 Herriak
- 20 Hirudika: 23. Korrika, Uribe Kostan
- 24 Berbetan: Ezra Gojenola, munduko herrialde guztiak bisitatu dituen lehenengo euskalduna
- 28 Uribe Kostako agenda
- 30 Lehen/orain eta Uribitakora
- 31 Musikhariak
- 33 Irantzu Varela eta Maria Gorosari, feminismoaren hutsaltzeaz
- 34 Iritziak
- 35 Usategi
- 36 Uxue Hernandez eta Jon Lopez, Leioa Waterpolo
- 37 Dragon Boat
- 38 Faceguk: Nola egiten dituzu finantza-eragiketak?
- 39 Aitormenak: Iker Galartza
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Zozketak



«Lehenengoa apur bat kamikazea izan zen»



23. Korrikan, euskararen aldeko mezuek zeharkatu zituzten Uribe Kosta



«Bidaiatu ostean, ikasi dut hemen dudana gehiago baloratzen»



Dragon Boat-eko kideak: «Laguntasuna eta indarra ematen digu kirol honek»

# hiruka

**HIRUKA kooperatiba elkarte**

**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO

**e-posta:** hiruka@hiruka.eus

**Telefona:** 944 911 337

**Publizitatea:** Amaia Legarreta eta Udane Ladislao

**Erredakzioa:** Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

**Diseinua:** Artefakto Estudio

**Kudeaketa eta administrazioa:** Ziortza Merino

**Zenbaki honetako kolaboratzaileak:** Armando Llamosas, Amaia Arriaga, Nahikari Ayo, Josu Esnaola eta Joseba Santxo

**Filmazioa eta Inprimategia:** Gertu Inprimategia

**Lege-gordailua:** BI-2022-2014

**ISSN:** 2386-98-95

**Ale-kopurua:** 5.000

**CC-BY-SA**

Erakunde laguntzaileak



**Getxo**  
*bizi ezazu*



**Leioa**  
UDALA-AYUNTAMIENTO  
Euskara Zerbitzua



Sopelako Udala



Plentziako Udala



Urdulizko Udala



Gorlizko Udala



Barrikako Udala



Lemoizko Udala

 **Bizkaia**

foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

## Erandon euskaraz

**AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA** Herri-langilea



**O**raindik ere beharrezko ditugu euskararen aldeko dinamika sozialak, ikusgarritasuna eta aldekotasunak irabazten laguntzeko. Alde horretatik, ez da makala KORRIKAK egiten duen ekarpena. Euskal Herri osoan zein gure eskualdean KORRIKAREN olatuarekin bat egin dugu milaka lagunek, adin guztietakoak, baina bereziki gazte jendeari erreparatu diot nik. Eta itxaropena berpiztu dit, olatu aparraren zipriztinek denok ukituko gintuztelakoan.

Erandon ere badaukagu euskararen aldekotasuna eta erabilera sustatzeko dinamika berezi bat, Berbotsen eskutik abiatu eta herriko hainbat eragilerekin garatu duguna azken 30 urteotan: Kanpomartxo. Aurten, Faeta auzoan izango da, apirilaren 28an, eta bertara batuko dira Mintza Eguna ospatzera Euskal Herri osotik etorriko diren mintzalagunak. Goizean udaletxeko plazan eta merkatu zaharrean ekitaldiak izan ondoren, Faetan bilduko gara denok, bazkari, kantu eta dantzaz gozatzeko.

Gero eta aldeko eta hiztun proaktibo gehiago sentitu nahi dut inguruan, euskaltzaleak, berbalagunak... aukera gehiago izateko, gure herrian euskararen erabilerak gora egiteko. Ea hurrengo kale-neurketaren emaitzetan goranzko joerarik antzematen dugun!

## Xake plaza

**ARMANDO LLAMOSAS** Ondarearen teknikaria



**K**aleko artea efimeroa ohi da. Alde batetik, nekez jasaten du kalea: euria, hautsa, argia... Bestetik, sarritan sistemaren mugetan dago, ekimena eta ideia da onena, ez hainbeste produktua.

Kale-artistek, Banksy adibidez, onartzen dute bere sormenak desagertzea, batzuetan lasterregia izan arren.

Xake plazaren murala, miraria izan da. Zentroan egonda, eta guztiok onartuta, urte asko egon da gure artean. Ibarretxek jeinutasun bat izan zuen, jeinutasun horiek posibleak zirenean. Aldi berean, Udalak onartu zuen, eta ondorioz, bere momentuko Bizkaiko mural handienetariko bat sortu zen. Amaitzeko, herriak onartu zuen, eta toponimoa finkatu zuen: Xake plaza. Urte horietan, konjuntzio hori, egun ezinezkoa, posiblea zen: herriak (herritar bat) zerbait inprobisatzen zuen, haatik, eta administrazioak, naturaz, onartzen zuen.

Hala ere, kaleko artea, esan dugunez, efimeroa da. Murala txarto zegoela bistan zegoen, eta errestaurazioa ez ohi dator bat arte mota horrekin. Geroan, hormak beste mural bat izango du, Ibarretxeren herentzia. Ondo zegokeen, antolatutako konkurtsoan jatorriaren keinu bat egin izana, xakea gaia edo inspirazioa izana. Ez dute egin, beraz, loturarik gabe proiektua herrena jaioko da. Ikusiko dugu.

## Puntua eta kontrapuntua **Banketxeak**

# Telebanka

*Zerbitzu denetatik  
gizakia kenduz,  
banketxeetan ere,  
hala dabiltz, tentuz.  
Makina makinari  
euroz euro lotuz,  
ta era hartan gaur-a,  
biharra pitzatuz,  
den deshumanoena  
deshumanizatuz.*

**PERU  
IRASTORTZA  
SANTXO**  
Algorta

*Le(he)n ere engainatzen  
eben baina aurrez,  
beheko letra txikian  
trikimailua gordez...  
Gaur agureak ezin  
molda Internetez;  
telebanka probeztuz  
luki koldarrez,  
lapurtzen jarraitzeko  
makinaren bidez!*

**JAGOBA  
PEREDA  
TXOPIETA**  
Getxo



**Ainhoa Eguren** Kanpomartxoko sortzaileetako bat

«Lehenengo  
Kanpomartxo  
apur bat  
*kamikazea*  
izan arren,  
ondo atera  
zen»

**Apirilaren 28an, 30. Kanpomartxo egingo dute Faetan, Erandion. Hori baliatuta, Berbotsen eta jaialdiaren hastapenetan egon zen euskaltzale bategaz izan gara.**

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANDER ZARRAGA ▶

**K**anpomartxok 30 urte beteko ditu aurten, eta Faetako San Pablo eta San Bernabe basilizaren inguruan batuko dira hainbat euskaltzale, tartean, Euskal Herriko Mintza Egunera joango direnak.

Duela 30 urte, Ainhoa Eguren izan zen Berbots eta lehen Kanpomartxo antolatzen aritu zen erandioztarretako bat. Kontatzen duenez, «euskaraz berba egin nahi genuen lagun-talde bat batu ginen, eta Berbots osatu genuen. Gero, elkarte herrian ezagutzera emateko zerbait egin behar genuela pentsatu, eta norbaitek komentatu zuen lehen Kanpomartxo egiten zela, Garizumaren aurretik; jendea landa batean elkartu eta bazkari bat egiten zuten».

Horretan hasi zirenek horrelako jai bat antolatzeko baliabiderik ez zutenenez, «gure kide bat *Gezurra nagusi* ETBko

programara apuntatu zen, eta beste bi lagun joan ginen berarekin. Bide horretatik atera genituen 180.000 pezeta-ri esker hasi ginen dena antolatzen». Herriko beste elkarte batzuk ere erakarri zituztela azaltzen du Egurenak, bakoitzak bere ekarpena egin zezan, «eta hor erabaki genuen auzoetan egin behar genuela, asfaltotik urrun».

Euskaltzaleak dioenez, gaur egungoak baino askoz ere xumeagoa izan zen lehen Kanpomartxo, «ez genekien nolako erantzuna izango zuen, baina, azkenean, arrakastua izan zen, eta urtez urte errepikatzen joan gara».

Bere ustez, jaia asko aldatu da orduetik: «Orain, jende gehiago etortzen da eta beste dimentsio bat hartu du: hasieran, bazkaria antolatzailentzako eta musikari edo bertsolarientzako izaten zen, baina, aurten, 300 pertsonentzako bazkaria prestatuko dute». Horren guztiaren eraginez, jaiaren hasierako zergatia apur bat galdu egin dela aitortu du euskaltzaleak: «Euskararen eta euskal kulturaren inguruan elkartzea zen hasierako helburua, bakoitzak bere otordua eramanda. Orain, jende asko etortzen da eta ez dakit denek oso argi daukaten euskararen inguruan antolatzen den jaialdi bat dela». ◀





902 200 041  
**LOCAL DISPONIBLE**  
LOKAL ERABILGARRIA  
LABORAL

SE ALO  
INMOBIL  
MAIDA  
GETZO  
944 910 09

BANKU

**Banku-bulegoen  
erdia baino gehiago  
desagertu da  
Uribe Kostan**

The image shows a close-up of a building's exterior. At the top, a dark blue horizontal band contains the letters 'BBVA' in a large, white, sans-serif font. Below this, the building's facade is made of light-colored stone or concrete blocks. A window with dark frames and white horizontal blinds is visible. In the foreground, there are green bushes and a paved sidewalk with a pattern of small, light-colored tiles. The overall scene is brightly lit, suggesting daytime.

# BBVA

**Banketxe eta bulego gutxiago daude urtez urte Euskal Herrian, eta Uribe Kosta ez da salbuespena. 2008tik 2023ra, sarearen erdia galdu da gurean; 76 bulego itxi dira, % 55,8, hain zuzen. Arrazoiak: krisia eta digitalizazioa. Horrek guztiak eragin zuzena izan du herritarrengan, baina, batez ere, adineko pertsonengan.**

TESTUAK ETA INFOGRAFIA: **IKER RINCON MORENO**

ARGAZKIAK: **HIRUKA** ▶

**L**ehman Brothers multinazional estatubatuarra porrot egin zuen 2008ko irailean, eta, horren eraginez, finantza-sisteman arrakala bat zabaldu zen, gutxira mundu osora hedatu zena. Besteak beste, krisi horrek banku-sektorearen eraldaketa sakona eragin zuen, gure herri eta auzoetan oraindino ere antzeman ditzakegun hainbat azterna utzi zituen, hala nola banku-bulegoen itxiera. Gurean, Uribe Kostako 10 udalerrietan, 76 bulego itxi dira ordutik, eskualdean zeudenen erdia baino zertxobait gehiago. Izan ere, inbertsio-banku estatubatuar ahalguztiduna kolapsatu aurretik, 136 banketxe-bulego zeuden zabalik Uribe Kostan; 15 urte beranduago, aldiz, 60. Tarte horretan, eskualdeak bere bulego-sarearen % 55,8a galdu du, Espainiako Bankuaren eta Eustaten datuen arabera.

Urte hartan abiatutako krisi ekonomikoak eragina izan zuen sektore askotan, tartean, ikusi bezala, bankan. Hori horrela, banketxe ugari krisialdian sartu ziren, eta fusio-olde batek hainbat aurrezki kutxa desagertzea eragin zuen, baita banku-eredu berri bat sortarazi ere, besteak beste. Eraginkortasunaren eta gastuen murrizketaren bilaketak, digitalizazioa oinarri hartuta, finantza-zerbitzuetarako sarbidea aldatu zuen betiko.

**FUSIOAK ETA EGOKITZAPENAK.** 2015ean –Espainiako Bankuak urte horretara arte ematen ditu mota honetako datuok–, 40 banketxek zituzten bulegoak Hego Euskal Herrian; 2023rako, berriz, 26 ziren inguruotan bulegoren bat edo beste zituzten entitateak. Uribe Kostan, aldiz, 13 entitatek zuten presentzia 2015ean; gaur egun, ordea, bederatzik. Bidean galdu dira Banco Popular, Bankia, Bankoa eta Deutsche Bank; lehenengo hirurak bat-egiteen edota absortzioen ondorioz: Banco Popular Santanderren parte da 2017tik; Bankia Caixa-bankekoa 2020tik; eta Bankoa Abancakoa 2021etik.



«Banketxeek gastuak murriztu dituzte mozkinak handitu ahal izateko, eta hala jarraituko dute»

J. IÑAKI DE LA PEÑA  
EHUKO IRAKASLEA



«Herritar digitalen estatus berria sortu dugu, baina mundu guztia ez da gai hor sartzeko»

ADELA MESA ETA MANU MARTINEZ  
EHUKO IRAKASLEAK



«Langileak kentzen ari dira, eta lan eta gastu horiek guztiak jendearen kontu uzten ari dira»

JOSEBA IBARRETXE  
PENTSIONISTEN MUGIMENDUA

Atzera eginez gero, ordea, fusioak askotari-koagoak izan dira, aurrezki kutxen artean batez ere. Berbarako, gurean pisu handia duen Kutxabank, banku izan aurretik, lau kutxa independente ziren, tartean, BBK. 2012an, aldiz, lauek bat egin zuten banku bihurtzeko. Ildo horretan, J. Iñaki De la Peña EHUKo Zientzia Ekonomiko eta Enpresarialetako doktoreak dioenez, krisiaren aurrean, kutzak desager-tzea ekiditeko neurririk ez zen hartu AEBetan eta, ondorioz, kiebran erori ziren. Horren aurrean, gurean, kutzak profesionalizatu eta bankaren munduan murgildu ziren: «Kutzak banku bilakatu ziren, baina, horretarako, diru-gordailu handi bat behar zuten arriskuei aurre egin ahal izateko. Eta, zelan lor zezake-ten hori? Handi egiten, besteekin bat eginez».


Banketxeen fusioek, besteak beste, bule-goen murrizketa ekarri zuten, «ez baita bide-ragarria lehen bi banketxerenak ziren bule-go bi mantentzea auzo berean», De la Peñak azaldu duenez, baina baita digitalizazioak ere. Izan ere, lehen bulegoetan egiten ziren finantza-operazio ugari modu elektronikoan egiten dira orain, dela Interneten dela banke-txeen aplikazioen bitartez. Hartara, «ez dute horiek mantentzeko beharrik, horien jarduna sinplifikatu dute, eta hainbat itxi ere», azpi-marratu du adituak.

Digitalizazio-prozesu horren eragina are nabarmenagoa izan da pandemiatik hona. Izan ere, etxean konfinatuta geundela, herri-tar asko murgiltze teknologiko sakona izan zuten, alor guztietan, eta, horrek, bere alde-tik, autonomoago izatea ahalbidetu zion gi-zarteari hainbat kontutan. Horri probetxua atera guran, digitalizazioaren bideari jarrai-tuta, banketxeek bulego-sarea berriro di-mentsionatu dute azken urteotan, kopurua murriztuz eta, horregaz batera, gastuak gu-txiagotuz. «Mugimendu horiei esker, etekin gehiago lortzen ari dira banketxeak; azken fi-nean, mozkinak areagotzeko, gastua murriz-tu behar da», dio De la Peñak.

Hala ere, digitalizazio horrek ezinegona eta kezka eragin ditu hainbat sektoretan, adine-ko pertsonengan batez ere. Izan ere, horrek bulegoen zein aurrez aurreko arretarako zerbi-tzuen murrizketak eragin ditu, eta gizon-ema-kume asko ez dira gai ziurtasunez elektroniko-ki operazioak egiteko. Hartara, besteak beste, Pentsionisten Mugimenduko kideek perso-na horien egoera ikusarazteko, salatze eta neurriak hartzeko mobilizazioak egin ditu ur-teotan eta, borroka horiei esker, banketxeek adineko pertsonak artatzeko ordutegia luzatu dute, 12:00ak arte. «Egindako presioari esker lortu da hori, duela bi urte egin genuen iskan-bilaren ondorioz», gogoratu du Joseba Ibarre-

## Banketxeen bulego kopurua Uribe Kostan

136 bulego




2008

76 bulego  
gutxiago

% 55,8

2023

60 bulego




Erreportaje hau interaktiboki ikusteko eta goiko adierazpenen elkarrizketa osoak irakurtzeko, eskaneatu ezazu goiko QR kodea.


## Bulego kopurua herriz herri

### Aldea 2008tik 2023ra

■ 2008 ■ 2015 ■ 2019 ■ 2023



Iturria: Espainako Bankua eta REustat



txek, Pentsionisten Mugimenduko kideak. Hala ere, ordutegia luzatu duten arren, bankak egiten dituen murrizketak deitoratu ditu: «Langileak kaleratzen dituzte oraindik, eta sukurtsalak ere ixten ari dira».

**FINANTZA-INKLUSIOA.** 2008an, Espainiako Estatuak zen Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea osatzen duten herrien artean banketxe-bulego gehien zuen herrialdea: bulego bat 1.000 biztanle bakoitzeko. Uribe Kostan, zenbateko hori 0,8koa zen garai hartan; gaur egun, ordea, 0,3koa; eta batez besteko hori are txikiagoa izango da etorkizunean, adituen arabera.

Ildo horretan, otsailean, Eusko Jaurlaritzak iragarri zuen finantza-zerbitzuak bermatzeko kutzazain automatikoak instalatzeko lizitazioak irekiko zituela martxoan 64 udalerritan, tartean, Barrikan eta Lemoizen. Hala ere, eskualdean ez dago udalerririk bulego edo kutzazainik ez duena eta, horrenbestez, uribekostar guztiek dute inguruan esku-dirua lortzeko aukera, urrutira joan beharrik gabe. Hala ere, eremurik zaugarrienak Barrika eta Lemoiz dira, bai. Batak zein besteak ez du banku-bulegorik, baina bai Kutzabanken kutzazain bana: lehenengoak, Elexalde auzoan, kontsultategiaren ondoan; bigarrenak, Armintzako autobus geltokian. Tokiko udalei deituta, baina, Barrikako iturriek HIRUKARI jakinarazi diote ez dutela inolako laguntzarik jaso kutzazainak ezartzeko; hala ere, azaldu dute orain dela hilabete inguru Kutzabanke berak berriztu zuela aspalditik jarrita zegoena. Lemoizen, aldiz, Udalak dekretuz erabaki zuen 2021ean aurretik jarrita zegoen makina berriztea, eta hurrengo urtean egin zuen hori, udal-kutxatik ordainduta.

**BULEGOEN ITXIEREN ERAGINA.** Banketxeek kale nagusietan pilatu ohi dituzte haien bulegoak herriz herri eta auzoz auzo; izan ere, «historikoki, entitateek auzoz auzoko distribuzio-sarea gura zuten; gertutasuna helburu», gogoratu du De la Peñak. Hala ere, digitalizazioaren eta egokitzapenen ondorioz, daborduko hori ez da hala. 2008an, 136 lokal zituzten Uribe Kostan, erdia baino zertxobait gehiago, 73, Getxon. Egun, ordea, zenbateko hori erdira murriztu da, eta 60 daude orain. Galerarik handiena Getxon izan da, 46 bulego galdu baitira bertan urteotan, hau da, % 63. Lokal horien itxierak eragin zuzena izan du tokiko paisaian, eta banketxeak zirenak, askotariko komertzio bilakatu dira, hala nola fruta-dendak, harategiak edota arropa-dendak; hala ere, badira oraindino atek itxi zizutenetik berriro ireki ez dituztenak ere. ◀

**Getxo** Babes ofizialeko etxeak

## 64 BOEetan izena emateko epea ireki du Jaurlaritzak

**A**lgortako Sarrikobaso promozioa babes ofizialeko 68 etxebizitza errentamendu-erregimenean esleitzeko prozedurarako eskabideak aurkeztu daitezke, apirilaren 19ra arte. 68 etxebizitzetatik hiru bi logelatakoak dira, 90 metro koadro inguruko azalera dute eta mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonentzat egokituta daude. Gainerako 65 etxebizitzetatik, sei logela bakarrekoak dira, eta 50 eta 55 metro koadro artekoak; 48 etxebizitza bi logelakoak, eta 55 eta 65 metro koadro artekoak, eta 11 hiru logelakoak eta 78 eta 88 metro koadro artekoak. Eskatzaileak Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta emanda egon behar dira alokairuko eskatzaile gisa, Bilbo Metropolitarrako eremu funtzionaleko udalerriren batean. ◀

**Getxo** Lan-gatazka

## Udaleko lorezaintza-zerbitzuko langileak, greba mugagabea

**G**etxo Lorategiak ABEEko beharginek ELA sindikatuaren bitartez salatu dute 2022an enpresak beherantz lizitu zuela Getxoko lorezaintzaren esleipena, eta horrek lan-baldintzak okertzea eragin duela. Gaineratu dute enpresak lan-hitzarmenaren negoziazioa blokeatuta duela, eta Udala ere egin dute egoeraren arduradun. Apirilaren 2an egin zuten lehenengo lanuztea, eta «jarraipen zabala» izan zuten. ◀

**Getxo** Osoko bilkura

## Garbiketa-zerbitzua esleitzeko kontratua onartu du Udalak

**Gobernu-taldeko EAJk eta PSE-EEk alde bozkatu dute; EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek kontra egin dute eta PP, berriz, abstenitu egin da.**

**M**artxoko osoko bilkuran onartutako kontratu berriak hurrengo hartuko du barne: hiri-garbiketako, gaikako bilketako eta hiri-zein udal-hondakinen garraioko zerbitzu orokorra; Udaleko ingurumen-gunearen ustiapena; tamaina handiko objektuen eta tresnen bilketa, berberabiltzeko prestatzeko premisaren pean; eta etxeko hondakin arrakatsuak biltzeko guneen kudeaketa. Horretarako, 58 milioi euro bidertuko ditu Udalak, gehienez, BEZA barne, bost urterako.

Udal-iturrien arabera, asmoa da birziklatze-helburuak betetzea: % 55a 2025erako, eta % 60a 2030erako. Horretarako, besteak beste, langile-kopurua bikoiztu eta birziklatzeko prestaketa areagotuko dituzte. Era berean, 9 gune finko jarriko dituztela iragarri dute, asteko zazpi egunetan etengabe zabalik egongo direnak, hiri-zein udal-hondakin arrakatsuak kudeatzeko. Horrez gain, Larrañazubiko ingurumen-gunea ustiatzeko aukerak ere gehi-



Kontratu berria bost urterako izango da.

tu dituzte, aintzat hartuta konposta egiteko eta errefusa kudeatzeko bi-lehortze-instalazioak.

Gobernu-taldeak nabarmendu du kontratuagaz zerbitzuaren kostua murrizten joango dela, eta, horri esker, baita tasak ere. EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek, aldiz, kritikatu dute kontratuan ez direla jasotzen enpresako langileek soldatari dagokionez egindako aldarrikapenak eta, hortaz, lan-gatazka sortzeko aukerak mahai-gaineratu dituzte, baita euskara eta berdintasuna aintzat hartu ez direla kritikatu ere. ◀

**SAN NIKOLAS**  
IKASTOLA  
SANIKOLAS.EUSIZATOZ

ikastolenelkartea

Arenezpi Kalea, 15 (48991)  
Getxo, Bizkaia

94 430 54 78  
ikastola@sanikolas.eus

Leioa Udan familia eta lana uztartzeko aukera

# Maiatzaren 5era arte eman ahalko da izena Leioako udalekuetan

Leioako Udalak Uda, Gazte Uda eta Udatxiki programak eskainiko ditu beste urte batez. Egitasmo horien bitartez, ume eta gazte leioztarrak udako oporretan dauden bitartean, hezkuntza eta kirola bateratzen dituen aisialdirako aukera duten bitartean, gurasoei lana eta familia kontziliatzeko aukera ere eman gura diete. Izena emateko epeari dagokionez, apirilaren 22tik maiatzaren 5era arte egin ahalko da Gazte Uda eta Udaren kasuetan, eta maiatzaren 20tik 29ra, Udatxikiren kasuan.

## Datak

**Uda:** ekainaren 15etik 30era eta uztailaren 1etik 12ra, 10:00etatik 14:00etara.

**Gazte Uda:** Uztailaren 1etik 12ra, 10:00etatik 14:00etara.

**Udatxiki:** Uztaila osoa, hamabostaldi bat ala biak. 09:00etatik 14:00etara.

Batetik, Uda 2011 eta 2017 urteen artean jaiotako umeentzako kirol-eskaintza izango da, eta bi txandetan banatutako 800 plaza izango ditu. Bestetik, Gazte Uda programan 14 eta 17 urte arteko 80 gazte eman dezakete izena, eta, goizeko ordutegian txangoak bezalako ekintzak egingo dituzte. Bukatze-ko, Udatxikik 2018 eta 2021 urteen artean jaiotako umetxoentzako ekintza ludikoak eskainiko ditu udalerriko ikastetxeetan. Ordu-tegia 08:00etatik 16:00etara izan daiteke, gurasoek hala behar badute. ◀



## Plataforma sortu dute tunelaren aurka

Martxoaren 19an, Subflubiala Ez itsasadarreko tunelaren aurkako plataforma aurkeztu zuten. Partaideek proiektuak eragingo dituen kalteak zerrendatu eta egitasmoa geldiarazteko mobilizazioak iragarri zituzten.

## Leioa Konekta

### Arrakala digitala murrizteko zerbitzua abiatu dute

Leioako Udalak martxan jarri du Arreta Digitalerako Bulegoa. Egitasmo horri esker, Internetera sartzeko aukera, baliabide edo trebetasun gutxiago duten Leioako herritarrei administrazio-izapideak egiten lagunduko diete.

Zerbitzua telefonoz jaso daiteke 946 510 002 zenbakira deituz edo, aurrez aurreko hitzordurik gabe, Errekalde Plazako 4-5-6 instalazioetan astelehen, eguazten eta bari-kuetan, eta Langileria kalean 64, martitzen eta eguenetan. Kasu guztietan, 09:30etik 14:00etara, goizez, eta 16:30etik 19:00etara, arrastietan. ◀



**KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ**

**BETIKO**  
IKASTOLA

[www.betikoikastola.eus](http://www.betikoikastola.eus)  
Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa  
[info@betikoikastola.eus](mailto:info@betikoikastola.eus)  
94.464.23.64

## KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

**Berango** Aurrekontuak**Herrian inbertsioak egiteko 2,7 milioi bideratuko ditu Udalak**

**M**artxoan egindako ezohiko osoko bilkuran, 2024rako aurrekontuak onartu zituen Udalbatzak. Hala, Udalak 9,4 milioi euro izango ditu aurten, iaz baino % 6,22 gutxiago. Gobernu-taldeak (EAJ-PSE) egindako proposamenak, PPren babesa izan zuen; EH Bildu abstenitu egin zen bozketan eta Elkarrekin Podemosek kontra bozkatu zuen. Itziar Aguinagalde alkatea pozik agertu da emaitzagaz, «aurrekontu anbiziotsua eta errealista delako». Inbertsioei dagokienez, 2,7 milioi bideratuko dituzte «herritarrek aurrekontu parte-hartzaileetan eskatu dituzten» 8 jarduera gauzatzeko. Inbertsio nagusia Lantzarte auzoa berrurbanizatzeko izango da, bi milioi euro erreserbatu baitira horretarako. ◀

**Berango** Eskalada Txapelketa**Idoia Martinez eta Andoni Esparta, boulderreko garaileak**

**J**oan den martxoaren 16an, Euskadiko Boulder Txapelketa izan zen Sputnik Climbing Berangon eta, norgehiagoka estu baten baitan, Idoia Martinez eta Andoni Esparta izan ziren txapelkun absolutuak, finaleko lau blokeak gainditu ostean. Haizea Oses eta Mikel Linacisoro izan ziren bigarrenak, eta Joanes Esparta eta Aitziber Urrutia hirugarrenak. Guztira, 207 eskalatazailerik eman zuten izena txapelketara, lau kategoriatan banatuta. ◀

**Berango** Koparen bila**Otxandategiko joaldunak, Sevillan, lehoiak hauspotuz**

**Dantza-taldekoek joareak gogor astindu zituzten joan den apirilaren 6an, Sevillan, Athleticen eta Mallorcaren arteko finalean. Asmoa: zuri-gorriak animatzea garaipenerako.**



Guadalquivirren hirian jo zituzten joareak, Kopako finalean. OTXANDATEGI TALDEA

**E**rrege Kopako finala zela-eta, Otxandategi dantza-taldekoko joaldunak Sevillara egin zuten bidaia apirilaren 6an, Athletic eta zale zuri-gorriak animatzeko asmoz. Berangoko taldeko kideek HIRUKAri azaldu diotenez, Andaluziako hiriburuko kaleetatik joareak jotzea «hunkigarria» izan

zen, eta afizio osoa haien erritmora batzea lortu zuten. Hala ere, aitor-tzen dute joaldunaren janzkera ez dela aproposena latitude horietarako, «bero handia zelako», baina horrek ez zien galarazi gozamena eta haien zeregina: «Betirako gure bihotzean gordeko dugun oroimena izan da». ◀

**GetxoGas**

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

**GetxoGason Euskararekin bat!**

**OSO** ALGORTA

*Gizonezko moda*

instagram.com/oso\_algorta/  
facebook.com/OSOalgorta

ALGORTAKO ETORBIDEA, 59  
osalgorta@gmail.com

Sopela-Uribe Kosta Garraio publikoa

# Bilboko metroaren maiztasuna handitzea adostu dute alderdiek

Metroaren L1 linea osoan gutxienez 13 minutuko maiztasuna bermatzeko mozioa aurkeztu dute, trenak Ibarbengoatik Plentziara maiztasun horregaz hel daitezten.



Metro Bilbaori eskatuko diote L1ean 13 minutuko maiztasunak bermatzea, bestea beste.

Sopelako Udalak martxoaren 26ko azken osoko bilkuran herrian ordezkari-tza duten alderdi politiko guztiek metroko maiztasuna handitzeko mozioa onartu zuten; mozioa Uribe Kostako EH Bilduko kideek aurkeztu zuten, «Hurrengo geltokia: Uribe Kosta!» kanpainaren baitan, eta, besteak beste, Getxon ere onartu dute, besteak beste. Helburua da eskualdean metroaren maiztasuna hobetzea, eta Metro Bilbaori zein Bizkaiko Garraio Partzuergoari

zuzendu diote. Argudiatu dutenez, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten udalerriek hazkunde demografiko handia izan dute, eta, hazkunde ekonomikoagaz batera, hainbat erronkak eragin ditu mugikortasunari eta konektibitateari dagokienez. Era berean, Larrabasterrarako unitateen maiztasuna 6 minutu eta 40 segundora handitzearen bideragarritasuna ebaluatzeko azterketa tekniko bat egitea eskatu dute, «egoiliarrei zein turistei mesede egingo liekeena». ◀

Sopela Udako koloniak

## Udaleku ezberdinetan izena emateko epea ireki dute



Maiztaren 12ra arte egingo da zabalik epea.

Udaberriagaz batera, hurbiltzen ari da udaleku sasoi, eta, horregatik, Sopelako Udalak udako oporretako udaleku ezberdinen izen-ematea ireki du, maiatzaren 12ra arte. Besteak beste, hauek dira eskaintzak: Udaleku irekiak, Musikaz blai, Surf udalekuak eta Summer camp. Izena eman daiteke Sopelako Kurtzio kultur etxean edota propio sortutako estekaren bidez, udal-webgunean. Izen-emateak plaza kopurua baino handiagoak badira, zozketa bidez esleituko dira plazak, eta hori maiatzaren 20an egingo da, eguerdiko 12:00etan, Kurtzio kultur etxean. Txanda eta udaleku mota berean izena eman duten neba-arrebak batera sartuko dira zozketan. Halaber, udaleku bakoitzak bilera ezberdinak egingo ditu Kurtzio kultur etxean informazio guztia azaltzeko: Summer camp, ekainaren 4an, arrastiko 19:00etan; Musikaz Blai, ekainaren 5ean, arrastiko 19:00etan; Surf udalekuak, ekainaren 6an, arrastiko 19:00etan; eta Udaleku irekiak, ekainaren 7an, 1. eta 2. txandak, arrastiko 19:00etan, eta 3. eta 4. txandak, arrastiko 20:00etan. ◀



QR-A ESKANEATU  
INFORMAZIOA  
ESKATZEKO

## BATXILERGOKO MATRIKULAZIOA ZABALIK

APIRILAREN 8TIK 19RA

Zatoz gure Hezkuntza Proiektua  
eta ikastola ezagutzera!



94 676 02 66  
info@anderdeuna.eus  
Gatzarriñe 47, Sopela



**BATX**  
ander deuna  
IKASTOLA

**Erando** Mintza Eguna 2024 eta 30. Kanpomartxo

# Euskara udaberriagaz batera loratuko da Erandion

**Apirilaren 28an, Erandiok euskararen aldeko hitzordu bikoitza izango du: batetik, 30. Kanpomartxo egingo dute Faoetan, eta, bestetik, Mintza Eguna, Altzagan.**

ANDER ZARRAGA ►

**M**intza Eguna euskara ikasten ari direnen, praktikatu gura dutenen edo inguru euskaldun batean lagunak egin gura dituztenen Euskal Herriko urteroko topaketa da. Bertan, zazpi lurraldeetako udalerrietako mintzalagun, berbalagun, mintzakide zein solaskideen taldeko kideak batzen dira. Ainhoa Luz Euskaltzaleen Topaguneko kideak laburbildu duenez, «talde hauek, normalean, astero batzen dira, baina errutina horretatik ateratzeko eta beste udalerrietako mintzalagunekin erlazionatzeko, sartzeko eta bestelako errealitate batzuk ezagutzeko urtean behin antolatzen dugu Mintza Eguna».

Aurten, Erandion egingo dute, apirilaren 28an, Berbotsek urtero antolatzen duen Kanpomartxo jaialdiagaz batera. Gainera, udalerririk horretako euskara taldeak antolatzen duen jaialdiak 30 urte beteko ditu oraingoan; ospakizuna borobila izango da, beraz.

Topaguneko kideak azaldu duenez, Mintza Eguna bertaratuko den jende gehiena mintzapraktiketan aritzen direnak izango dira; izan ere, hiru autobus antolatu dituzte lurralde ezberdinetatik Erandiora joateko. «Hala ere, horrek ez du kentzen inguruko herritarrek ere bertaratzea; azken finean, jai bat da non lehentasuna emango zaion euskaraz aritzeari, eta irekia egongo da edonorentzat».

Goizetik hasita, bertaratuko diren mintzalagunek ongiatorri-ekitaldia izango dute Aurori umoregileagaz. Horren ostean, bi proposamen izango dituzte: bisita gidatua Altzagako Ibarretik historialari batek gidatuta edo Mintzodromoan parte hartu. Azken horretan, online ere egin ahalko da, mundu osoko mintzalagunak arituko baitira arieketa egiten. Ostean, Ugaitz Alegriak gidatuta,



Kanpomartxo Erandioko auzoetan egiten du urtero Berbotsek.

## Egitaraua

**Apirilak 28, domeka****Altzagan****11:15** Harrera, Merkatu Zaharrea.**11:30** Ongietorri ekitaldia Aurorigaz.**11:45** Hamaiketakoa.**12:45** Bi proposamen aukera Merkatu Zaharrea: bisita gidatua edo Mintzodromoan.**13:45** Esker emate ekitaldia, Merkatu Zaharrea.**14:15** Autobusa Faoeta auzora, Kanpomartxo jaira.**Faoetan****11:00** Musika eskolako trikitilari eta panderojoleak.**11:30** Euskal dantzak**14:45** Herri-bazkaria.**16:00** Astrabuduko eta Erandioko kantaguneak.**17:30** Erromeria Luhartz musika-taldeagaz.**19:00** Amaiera.

hainbat mintzalagun sarituko dituzte beren ibilbidean egindako lana aitortzeko. Azkenik, bazkalorduan, autobusak hartu eta Faoetara joango dira Kanpomartxoko herribazkarian parte hartzeko.

**30. URTEURRENA.** Berbotseko kidea eta Erandioko Berbalaguneko dinamizatzailea da Mikel Zarate. Kontatu duenez, aurtengo Kanpomartxo Faoeta auzoan egingo dute, bertan egin zutelako lehen aldiz duela 30 urte. «Hala ere, betiko formatua izango du: Goi Alde, Trabudu eta Uztargi taldeen dantzak, trikitilariak eta Onintza Enbeita eta Peru Vidal bertsolariak egongo dira. Bazkalostean, kantaguneez alaituko dute bazkalondoa, eta bukatzeko, Luhartz taldearen erromeria egongo da».

Luzen ustez, horrelako ekimenek oso ekarpen positiboa egiten diote euskarari eta euskaltzaletasunari, «behin ariketa amaitu eta gero, lagun sare bat sortzen delako, beste modu batera ezagutuko ez liratekeen pertsonen artean, eta harreman hori euskaraz egiten delako. Gainera, modu ludikoan sortzen denez, bestelako ekintzak ere atera daitezke hortik, beti ere euskaraz egingo direnak». Zarate ere bat dator Topaguneko kideak esandakoagaz, eta gaineratzen du Kanpomartxok hori bera lortu duela Erandion, «auzoetan herriko jende euskalduna batzeko jaia delako, euskaratik euskararentzako sortua». ◀

**Plentzia** Elikagaien xahutzea saihesteko ekimena

# Institutuko jantokiko 133 kilo janari erreskatatu dituzte ikasleek martxoan

**R**esiduo Cero fundazioaren Rexcatering izeneko ekimenaren bitartez, hainbat jantoki-zerbitzutako jatekoa berreskuratzen dute, dohainik, herritarren esku jartzeko. Iazko azaroan, Plentziako udaletxeko arkupean, Uribe Kostata BHI institutuko jantokiko soberakinak eskuragarri jartzeko salmenta-makina bat jarri zuten Udalaren eta Residuo Cero fundazioaren lankidetzari esker.

Fundazioko kidea eta Rexcatering proiektuko arduradunetako bat da Alvaro Saiz, eta, azaldu duenez, proiektuak jaki horien berreskurapena ahalbidetzeaz gain, «hezkuntza-osagai oso garrantzitsua» ere badu, prozesuetan ikasleak inplikatzeko dituztelako: «Ikasleek aplikazio baten bidez kudeatzen dute makinan dagoen jatekoa, beraiek jartzen dituzte etiketak eta beraiek kudeatzen

583

anoa berreskuratu dituzte institutuko jantokitik martxoan.

6

ordu izan da gehienez makina husteko behar izan duten denbora.

14

egunez egon da martxoan udaletxeko arkupean dagoen makina.

dute makina zuzenean». Halaber, adierazi du, makina horretatik edonork jatekoa hartu dezakeenez, premiagatik hartzen duten pertsonen «duintasuna» ere ematen zaiela, «ez delako inor seinalatzen; hau ez da pobrentzako makina, herritar guzientzako baizik».

«Jakien segurtasuna eta egoera ona bermatzeko, prozesu sanitario baten bitartez berreskuragarriak direnak bereizten ditugu, jantokietako langileak prestatzen ditugu, eta makinara doazen elikagaiak ontziratu eta termoseilatu egiten dira, temperatura oso azkar jaisten dien makina bati esker iraugintzaduta bost egunez luzatuz», azaldu du Saizek.

Plentziakoagaz batera, Rexcatering proiektuak hainbat makina ditu udalerrri eta ikastetxe ezberdinetan. Gainera, proiektu horri esker, hainbat sari ere jaso dituzte azken urteotan. ◀

## ARTOLOZAGA ANAIAK Tailerrak

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

**Bidaia hasi baino lehen gomendio batzuk...**

Bidaiatu baino lehen **komenigarria da tailerrera joatea, aurre-azterketa eta sistema guztien ordenagailu bidezko diagnostiko elektronikoa egiteko.**

- Ibilgailuaren likido-mailak konproba itzazu.
- Pneumatikoen marraskia eta errodaduraren banda behatu, zein puntutaraino higituta dauden jakiteko. Karga altuko kasuetan, presioa zaindu, ordezko gurpilean ere.
- Indargetzaileak eta argiak behatu.
- Haizetako-garbigailuek egoera ezin hobean egon behar dute.
- Matxura kasuan erabili beharko diren tresnak behatu. (triangelu-seinalea, txaleko islatzailea, katua, uhalak, erremintak, argiak eta fusibleak aldatzeko ordezkoak ...).



talleresartolozaga.com  
946 763 814

Gatzarriñe Kalea, 42  
SOPELA

**Urduliz** Urez Ur Fest**Itsasoaren egoeraz kontzientziatzeko jaialdia egingo dute**

Sarrera doakoa izango da.

**A**pirilaren 15etik 21era, Urduliz itsasoari buruzko edukietan hezteko eta kontzientziatzeko topagune bihurtuko da. Hala, Urez Ur Fest jaialdiaren helburua da jendeak itsasoarekiko enpatia eta ulermena garatzea, adituen, zientzialarien eta dibulgatzaileen ikuspegiakaz eta azalpenakaz lagunduta. Jaialdiko ekintza guztiak Urdulizko kultur etxean egingo dituzte, Udalak eta Tantak elkarteak antolatuta. Gainera, sarrera doakoa izango da. Hainbat jarduera daude antolatuta lehenengo Urez Ur Fest jaialdi honetarako. Horien artean, itsas-argazkien erakusketa egongo da ikusgai, apirilaren 15etik 28ra arte. Horrez gain, eskolako ekintzak ere egingo dituzte gaztetxoentzako apirilaren 16, 17 eta 18an, itsas-bioaniztasuna ezagutzeko eta itsasoen kontserbazioa sustatzeko. Apirilaren 20 eta 21ean, hitzaldiak eta dokumentalak egongo dira itsasoko arlo ezberdinetako adituakaz, eta, apirilaren 21ean ere, busti gabeko urpekaritza saioa egingo dute, goizeko 11:00etatik 14:00etara. Bertan, Ozeano Atlantikoan murgiltzeko aukera izango dute herri-tarrek betaurreko birtual batzuen bidez. ◀

**Urduliz** Naturarekiko kontzientziaren sustapena**Haurtzaroko Basoa ezagutzeko ekimen berri bat egingo dute**

**Apirilaren 14an, domekan, Urdulizko Udalak tailer bat eskainiko du familia osoarentzako, Haurtzaroko Basoa gaur egun zertan diharduen jakiteko.**



Udalak Tantak tokiko elkartearen laguntza izan du jarduera antolatzeko. TANTAK

**P**roiektua 2022ko otsailean jarri zuten abian, udalerriko lursail batean zuhaitz autoktonoak landatuz. Helburua da kontzientzia eta lotura sortzea Urdulizko haurren eta haien ingurune naturalaren artean. Horretarako, aurretik tailer bat egin zuen, eta udalerrian erroldatutako 6 eta 16 urte bitarteko 150 parte-hartzailek baino gehiagok beren zuhaitza landatu zuten. Jardunaldia amaitzeko, dibulgazio-tailer bat

ere egin zuten. Horretan, landatutako zuhaitz autoktonoen eta espezie inbaditzaileen ezaugarriak azaldu zituzten. 2023an, zuhaitz autoktonoak landatzeko bigarren jardunaldia egin zuten, oraingo horretan, 6 urte bete zituzten haurrakaz, eta, berriz ere, dibulgazio-tailer batez amaitu zuten ekimena. Bestalde, jardunaldia osatzeko, konpostaje-eta zuhaitzak zaintzeko tailer bana eskaini zitzaizen aurreko urteko parte-hartzaileei. ◀

**ARANTZA ETXEBARRIA**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra  
Ortodontzia

Periodontzia  
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA

944 307 696

**bai**  
euskarari

*irati*  
MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com  
Torrene, 2 48991 – ALGORTA

Lanbide-Heziketako Ikastetxe Integratua



**Fadura**  
Ikastetxea

Centro Integrado de Formación Profesional

**ERDI ETA GOI-MAILAKO**

# HEZIKETA ZIKLOAK CICLOS FORMATIVOS

GRADO MEDIO Y SUPERIOR

**Ate Irekiak Apirilak 15etik 25era, 18:00an**  
Puertas Abiertas del 15 al 25 de Abril, a las 18:00

*iTu futuro hoy!*  
*Zure lanbidea aukeratu!*

## ERDI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

- Apirilak 24 **Telekomunikazio-instalazioak** (A eredu) Instalaciones de Telecomunicaciones
- Apirilak 25 **Mekanizazioa** (B+) Mecanizado
- Apirilak 18 **Karrozeria** (A eredu) Carrocería
- Apirilak 17 **Ibilgailu Automobilen Elektromekanika** Electromecánica de Vehículos (D eta A ereduak)
- Apirilak 15 **Erizaintzako laguntzailea** (D eta A ereduak) Aux. Enfermería
- Apirilak 16 **Osasun-larrialdia** (D eta A ereduak) Emergencias Sanitarias

## GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

- Apirilak 24 **Automatizazio eta Robotika Industrial** (A eredu) Automatización y Robótica Industrial
- Apirilak 23 **Fabrikazio Mekanikorako Produktzioaren Programazioa** (A) Programación de la Producción de la Fabricación Mecánica
- Apirilak 16 **Haur-hezkuntza** (D eredu)
- Apirilak 15 **Osasun-dokumentazioa eta Administrazioa** (A eredu) **online** Documentación y Administración Sanitarias
- Apirilak 23 **Gizarte eta Kirol Animazioko eta Irakaskuntza** (D eredu)

IKASTURTEA

2024-2025

E M A N I Z E N A

A P Ú N T A T E

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

LAN  
POLTSA



BOLSA  
DE TRABAJO

[www.fadura.eus](http://www.fadura.eus)  
**944 06 90 00**  
GETXO BIZKAIA



**Gorliz Osasuna****Maiatzaren 19an, Nordic Walking Eguna egingo dute, martxa bategaz**

**U**rtero legez, Nazioarteko Nordic Walking Eguna egingo dute Gorlizen. Martxa hasteko topalekua herriko kiroldegia izango da, eta parte-hartzaileek 7 kilometroko ibilbidea egiteko aukera izango dute giro ezin hobean. Maiatzaren 19rako, domekarako, hurrengo egitaraua antolatu dute: 10:30ean, ibilbiderako prestakuntza-tailerrak egingo dituzte, parte-hartzaileak laguntzeko; 11:30ean, martxaren hasierari ekingo diote guztiok batera; eta 13:30ean, amaitzeko ordua ezarri dute. Izenematea doakoa da, eta Gorlizko Turismo Bulegoan egin daiteke edota 946 774 348 telefonora deituta. ◀



7 kilometroko ibilbidea egingo dute.

**Lemoiz Aerosorgailuko emaitza onak****Armintzako itsas parke eolikoa 2027an abiatzea espero dute**

**Saitec ingeniari-tza-entresak positibotzat jo ditu Armintzako portuaren aurrean dagoen Demosath aerosorgailuaren emaitzak.**



Aerosorgailua 2023ko irailean itsasoratu zuten. SAITEC OFFSHORE

**D**uela urte erdi, Demosath izeneko aerosorgailu flotagarria itsasoratu zuten, Armintzako portutik bi itsas-miliara kokatuta dagoena. Orditik, hainbat proba egin dituzte, eta horien emaitza «onak» direla-eta, Saitec ingeniari-tza-entresak iragarri du 2027ko amaieran martxan jarri gura duela Geroa itsas parke eolikoa. Hiru aerosorgailu

jartzeko asmoa du, 45 eta 48 megawatt sortzeko. Horiek, 45.000 etxebizitza ingururen energia-beharrak estaliko lituzkete, horren arabera. Demosath prototipoa 85 metroko sakonerako gunean dago, eta Bilbo-ko portuan eraiki zuten bi plataforma flotatzailearen gainean. Joan den udan lekualdatu ondoren, prototipoa irailetik dabil Bimep proba-gunetik sarera energia bidaltzen. ◀

**Lemoiz Herriko eraikinak apainduz****«Lurretik hormara» proiektu artistikoa egingo du Udalak**

**A**rtea eta sormena uztartzen dituen ekimena da «Lurretik hormara», aurreko lehen aldiz Lemoizen abian jarriko dena. Helburua da lur gaineko marrazki-lehiaketa ireki bat egitea, eta bertan egindako marrazkien ideietatik abiatuta, herriko eraikinak margotzea. Ekimenaren emaitzagaz fatxada apaindu gura duten komunitateek ohiko bideak erabil ditzakete



Maiatza eta ekainean egingo dute.

Udalagaz harremanetan jartzeko. Proiektua maiatza eta ekaina bitartean egitea aurreikusten dute, eta jarraipena izango du datozen urteetan. Horretarako, Udalak jabeen erkidegoak eta etxebizitzaren jabeak proiektuan parte hartzerako gonbidatu ditu. Modu horretan, prest dauden fatxadetan eta hautatutako irudirik abiatuta, artista talde batek sortutako zirriborroa horman islatuko du. ◀

## Uribe Kosta Hauteskundeak

# Lehendakari berria eta Legebiltzarra aukeratzeko bozak

**A**pirilaren 21ean hitzordu garrantzitsua izango dugu EAEko biztanleok: Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Daborduko lehendakari guztien aurpegiak ikus daitezke hauteskunde-propagandetan, auzoz auzoko hormetan zein etxez etxera bidalitako gutunetan. Aurtengo lehia inoizko estuena espero da, EAJren eta EH Bilduren arteko norgehiagoka bizia. Jeltzaleen hegemonia zalantzan dago oraingoan eta, adituen arabera, 40 urtean lehendabizikoz atera liteke ezker abertzalea garaile; martxo sozietromoak berdinketa iragarri zuen indar bien artean, 29 eserlekugaz bakoitzarentzat. Hala, bozkaren ehiza gogorra izango da egunotan; EH Bildu izan da lehena Uribe Kostan ekitaldi politikoa egiten, apirilaren 5ean bertan, kanpaina hasi eta egun berean, Algortan. Horretan, Pello Otxandiano lehendakari guztiak zerbitzu publikoen, eta bereziki Osakidetza, aldeko konpromisoa azpimarratu zuen, besteak beste. Hurrengo PP izan da: apirilaren 8an, Areetan, Javier de Andres, Alberto Nuñez Feijooaren laguntzagaz, Pradalesekin kontra jo zuen, esanez bere diskurtso guztiak EAJren Gobernuaren kontrako «osoko zuzenketak» direla, eta benetako aldaketa euren proiektuak «soilik» ekar lezakeela. Elkarrekin Podemosek, bere aldetik, agerraldia egin zuen hurrengo egunean, apirilaren 9an, Leioan.

Lerrock idazterakoan, indar bi horiek soilik eginak zituzten agerraldi publikoak Uribe Kostan; hala ere, ez dira bakarrak izango gurean euren alde bozkatzeko deia egingo dutenak. Berbarako, EAJk ekitaldi politikoa egingo du apirilaren 13an, Getxon. PSE-EEK, aldiz, HIRUKAri zehaztu dio, hauteskunde informazio-banaketaz haratago, oraindino ez dutela egutegia itxita. Sumar eta Vox taldeek ere ez dute datarik zehaztu egunotarako eta inguruotarako. Aitzitik, gurean izandako EH Bilduk beste hitzordu batzuk iragarri ditu, lekuak eta orduak zehaztu barik: apirilak 12, Leioan; apirilak 14, Plentzian; apirilak 17, Erandion; eta apirilak 18, Sopelan. Baita Elkarrekin Podemos ere, apirilaren 15erako, Areetako Xake plazan, 18:00etan. Hitzorduak zehaztu ahal, informazio guztia hiruka.eus webgunean egingo da eskuragarri.

Bozka jokoa hasi da; nork irabaziko ote ditu 2024ko hauteskundeak? Apirilaren 21ean jakingo dugu. Gogoratu, hauteskunde-mahaiaik 09:00etatik 20:00etara egingo dira zabalik. ◀



## Gure ikasleen ahotan



### MAITANE MARSAL VEGAS

**Herria:** Sopela

**Ikasten ari zaren gradua:** Humanitate Digital Globalak - HDG

**Zaletasunak:** Irakurtzea, mendira joatea eta entrenamendu funtzionala

## «Gradu oso praktikoa da HDG eta gizarteko arazoengatik proposamenak lantzen ditugu»

### Humanitate Digital Globalak - HDG graduko 1. mailan zaude, zergatik aukeratu zenuen gradu hau?

Gradua nire ikastolan emandako hitzaldi bati esker ezagutu nuen. Oso gradu berezia iruditu zitzaidan, asko bidaiatzen delako eta klaseetan erabiltzen duten metodologia nahiko berritzailea delako. Nire profilararekin bat egin zuela ikusi nuen eta horrek nire interesa piztu zuen.

### Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?

Oso positiboa. Gradu praktikoa da eta klasera noan bakoitzean zeozer berria ikasten dut. Euskal Herri osoko pertsonak ezagutu ditut eta, horrekin batera, alor ezberdinetako erakundeak. HDGk errealitatean dauden problematikak zuzenean ezagutzeko aukera ematen digu. Adibidez, orain dela gutxi etengabeko aldaketak jasaten ari den Deustuko Erriberaren paseoaren proposamen bat amaitu genuen eta Erriberako auzokideei, Bilboko Udaletxeari eta Master Planeko arkitektoari aurkeztu genien.

### Zein metodologia erabiltzen duzue?

Bizipenetan oinarritutakoa batez ere. Klasean oso gutxi gara eta horrek ikasketa-prozesua pertsonalizatzen du. Teoria klaseak ere badaude, baina dinamikoak izaten dira moduluaren arabera. Orduetegiak malguak izaten dira eta, gainera, ez daude azterketarik.

### Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna?

Unibertsitateak errekurtsio eta kontaktu asko dituela. Hainbat enpresarekin lan egiten du Mondragón Unibertsitateak eta horrek abantaila ugari ditu. Alde batetik, enpresa horiekin lan egiteko erraztasun handiagoa duzu. Bestetik, zure helburuak lortzeko baliabideak ahalbidetzen dizkizu.

### Etorkizunari begira zein asmo daukazu?

Gradua amaitzerakoan ikasten jarraituko dut. Hezkuntza alorrean lan egitea gustatuko litzaidake, unibertsitate batean. Graduak etorkizunerako ate asko irekitzen dizkizu, atzerrira joateko aukera paregabeak ematen.

# Harro...

Uribe Kosta alderik alde zeharkatu zuten milaka euskaltzalek joan den martxoaren 21ean, 23. Korrikaren baitan. Ekimenak egunsentiagaz batera itzartu zuen eskualdea eta, hala, goizean goizetik entzun ahal izan ziren euskararen aldeko aldarriak eta mezuak, ozen, herriz herri, auzoz auzo eta kilometroz kilometro. Orrialdeotan egunak utzitako lagin txiki bat topatuko duzu; gehiago ikusteko, jo ezazu [hiruka.eus](http://hiruka.eus) webgunera.









1975



**Ezra Gojenola Pertika** Mundu osoko herrialde guztiak zapaldu dituen lehen euskalduna

# «Bidaiatu ostean, ikasi dut hemen dudana gehiago baloratzen»

**Gurasoakaz eta bere anaia Aihenegaz batera Egiptora bidaiatu zuen Ezra Gojenola Pertikak aurrenekoz, soilik 10 urte zituela. Bidaia horrek bere barrenean su bat piztu zuen: munduko herrialde guztietara bidaiatzearen desioa. Hala, 2023ko irailean bere ametsa errealtate bilakatu zuen 35 urte zituela, eta, egun, getxoztarra munduko herrialde guztietan egon den lehenengo euskalduna bihurtu da.**

TESTUA: NAHIA MARTINEZ GONDRA • ARGAZKIAK: EZRA GOJENOLA PERTIKA ►

**Zergatik erabaki zenuen munduko herrialde guztiak bisitatu gura zenituela?** Txikitatik izan naiz oso pertsona kurioa, esploratzaileren liburuak eta mapak irakurtzen ibiltzen nintzen, eta museoetara joaten nintzen sarri. Baina inflexio puntua izan zen orain dela 25 urte gurasoakaz eta anaiagaz batera Egiptora egindako bidaia. 10 urteagaz piramideen artean nengoela mundua ikusteko eta deskubritzeko gogoak sortu zitzaizkidan, baita nire anaia Aiheni ere. Hortik aurrera hasi nintzen beti bidaiatzen oporrak nituenean: nire lagunakaz, anaiagaz edota bakarrik. Aitzitik, orain dela 4 urte istripu bat izan nuen motorragaz Bartzelonan nengoela; oso istripu latza izan zen. Orduan pentsatu nuen bizitza aprobe txatu behar dela eta ezin nuela denbora galdu. Nire ametsa aurrera eramane behar nuen. Momentu horretan ia 33 urte nituen, eta dirutxo bat aurreztuta. Alde batera utzi nuen nire betiko bizitza eta hiru urte hartu nituen niretzako, nire ametsa betetzeko helburuagaz.

**Askotan bidaiatu duzu anaiagaz?** Bai. Egiptora joan ginenetik mundua ezagutzeko ametsa konpartitzen dugu, eta bera momentu honetan munduko herrialde guztiak bisitatu nahian dabil ere; 181 herrialdetan egon da momentuz. Elkarregaz 100 herrialde baino gehiagotara bidaiatu dugu, eta leku arris-

## 195

herrialdetan egon da Gojenola. Halere, NBEak 193 onartzen ditu ofizialki; Vatikanoa eta Palestina kanpo utzita.

## 35

urte zituela, Gojenola munduko herrialde guztietan egon den lehenengo euskalduna bihurtu da.

## 3

urte egon da bere denbora osoa baliatzen falta zitzaizkion herrialdeak bisitatzeko.

kutsuetara beti batera joan gara. Adibidez, Afrikako herrialde gehienetara beragaz joan naiz. Gainera, pertsonalki poz handia ematen dit beragaz esperientzia hau konpartitzea.


**Duela hiru urte joan bazinen, pandemia bete-betean zegoela hasi zinen falta zitzaizkizun herrialdeak bisitatzeko, ezta? Zer nolako zailtasunak izan zenituen?** Herrialde asko pandemia baino lehenago bisitatu nituen, beraz, horren arabera antolatu nintzen, irekita zeuden herrialdeei erreparatu. Lau herrialde ikusten banituen, eta bosgarrena itxita bazegoen, saiatzeko nintzen nolabait sarbidea topatzen. Esaterako, Afrikako lurraldeetan bertako jendeagaz berba egiten, azkenean beti lortzen nuen behar nituen gauzak. Bertako muga bat zeharkatzeko herrialde bateko enbaxadore batez berba egin behar izan genuen, dokumentu berezi bat lortzeko. Nahiko zaila zen guztia momentu horretan.

**Nola antolatu dituzu bidaiak?** Soilik joateko txartelagaz joaten naiz, eta nahiz eta gutxi gora beherako ibilbide bat pentsatuta izan, beste guztia inprobisatzen joan naiz. Jendeak leku batera edo bestera eramaten zaitu. Izan ere, nire ustez, bidaiatzea ez da soilik joatea leku batera bertan egotera, baizik eta bertako jendeagaz harremanetan egotea eta bertako kultura ezagutzeko eta ikastea.

**Ingurukoek prozesu honetaz guztiaz zer esaten zuten?** Lagunek noizean behin esaten zidaten ea zertan nenbilen eta ea burutik jota nengoen. Baina familiakoek ezagutzen nauten eta bazekiten nire ametsa zela. Istripua eta gero tristeago nengoenez, bazekiten hauxe zela ni animatzeko eta bultzada emateko bidea. Beti euren berotasuna izan dut.

**Zein da, zure ustez, herrialderik arriskuetsuena bisitatzeko?** Afrika inguruan herrialde asko oso latz daude, gerren ondorioz: Somalia, Txad, Sudan, Libia... Heltzeko ere oso zaila da, gerran daudenez, ezin zara turista moduan bertara joan; bertako norbait behar duzu zuri gonbidapen bat bidaltzeko. Gainera, bertara heldu arren, herrialde batzuetatik mugitzea ere arriskutsua izan daiteke. Gogoan dut Malin basamortua zeharkatzeko autobus baten barruan geundela, antza, Al Kaedako islamistak zeuden guri begira, autobusa zelatzen gu bahitzeko asmoz. Eskerrak ingurutik militarrek zeudela eta mugimendua ikusi zutenean gure bila joan zirela. Hori da bizi dudan momenturik arriskutsuena nik uste. Halaber, Afrikan lau aldiz egon gara atxilotuta, baina ez da ezer txarra egin dugulako. Esaterako, Hego Sudanen geundela, banku bati argazki bat atera nion eta polizia etorri zitzaigun galdetzera ea nortzuk ginen eta zer egiten genuen bertan. Azkenean, erdi-gerran dauden herrialdeetan argazkiak ateratzen badituzu espia zarela uste dute. Baina azkenean, dena ondo atera da eta alde positiboagaz gelditzen naiz.

**Eta gehien harritu zaituena?** Ipar Korea. Bertan ikusten duzuna ez duzu beste inon ikusten. Beste mundu batean bezala egotea da. Ez dute kafetegirik, supermerkatuak, dendarik... Dena da oso zurruna. Herrialde guztiek dute zerbaite berezia, baina gustatu



### Hizkuntzak

Gojenolak herrialde ezberdinetan ingelesa erabili du gehienbat, baina frantsesagaz, gaztelaniagaz eta portugesezagaz aski ondo mugitu da mundutik. Hala ere, Errusia eta antzinako Sobietar Batasuneko guneetan, zailagoa egin zitzaion, soilik errusieraz egiten dutelako edota euren tokiko hizkuntzan. Bestela ere, beti eramaten du beragaz orri bat 20-30 marrazkigaz gauza sinpleak eta beharrezkoak eskatzeko. Adibidez, autoaren marrazkia, hotela, janaria... Goiko argazkian, munduaren erdigunean dago, Quitotik gertu, Ekuadorren.

zaizkidan hiru herrialdeagaz gelditu beharko banintz, hurrengoak dira: hasteko, Venezuelak, paisaiengatik eta jendeagatik; gero, Iran, bere historia oso aberatsa delako eta jendea eskuzabala eta beroa delako; eta, bukatzeko, Afrika inguruan, Etiopia.

**Zure zerrenda osatzeko bisitatutako azken herrialdea berezia izango zen, ezta?** Nire azkeneko herrialdea Cabo Verde izan zen. Arrazoia izan zen Elcanok orain dela 502 urte munduari buelta eman zion momentuan Cabo Verde izan zela bisitatu zuen azkenengo herrialdea etxera bueltatu baino lehen. Zentzu horretan, omenaldi moduko bat egin nahi nion, eta anaiagaz eta familiagaz konpartitu nuen. Elcanoren itsasontzia, *nao Victoria*, Ondarroan egin zuten. Betidanik Getxon bizi izan naizen arren, sentimenduz ondarrutarra naiz eta konexio hori sentitu nuen beragaz.

**Hiru urteko bidaia honen ostean zenbait aurreitzi ezabatu zaizkizu?** Bai. Orain naizen eta duela 10 urte nintzen pertsona bi mundu ezberdin dira. Gauza materialak baino beste gauza batzuk baloratzen ditut gaur egun: jendea ezagutzea, esperientzia berriak bizitzea... Gainera, hainbeste bidaiatzeak ere lagundu dit hemen dudana guztia baloratzen. Euskal Herrian gauza asko hobetu daitezkeen arren, guztia dugu: segurtasuna, kultura, heziketa, osasuna, etab. Gure kultura eta identitatea zaindu behar dugu. Halaber, herrialde batzuen inguruan oso ideia markatuak ditugu. Zeintzuk diren «onak» eta «txarrak», esaterako. Gero bertara joaten zara eta jendea, orokorrean, oso jatorra eta eskuzabala da. Denak gara izakiak eta denok nahi dugu berdina lortu. Hemendik ematen den ikuspuntua ez da batere bertan ematen dena. Ikuspuntu geopolitikotik eraikitako iruditegiek eragin handia dute gugan.






Bandar Seri Begawan-ko meskitaren aurrean, Brunein. EZRA GOJENOLA PERTIKA

**Euskal Herria bera ere ezagutzen duzu?** Bai, baina egia da ez dudala hainbeste ezagutzen, kar-kar. Adibidez, Nafarroa Beherea gutxi ezagutzen dut. Nire asmoa da inguruko herri txikiak gehiago ezagutzea. Halere, bidaietan Euskal Herria beti izan dut nire bihotzean, eta nire eginkizuna euskal kultura eta historia zabaltzea zela sentitzen nuen.

**Hainbeste bidaiatu ostean, nolakoa izan da buelta?** Ez da hain erreza. Denbora luzez amets bat duzunean buruan eta gero lortzen duzunean, hutsune batez gelditzen zara. Hala ere, oso pozik nago bizitako guztiagaz. Esan bezala, etxera bueltatzen zarenean, ez

**Etxera bueltatzea**  
**«Denbora luzez amets bat duzunean eta gero lortzen duzunean, hutsune batez gelditzen zara. Hala ere, oso pozik nago bizitako guztiagaz»**

zara joan zinenaren berdina. Momentu honetan, liburu bat idazten ari naiz bizitako guztiagaz. Munduko herrialde guztiak bisitatu dituen euskalduna naiz, eta beraz, euskaraz idatziko dut. Asmoa da herrialde bakoitzaren inguruan idaztea nire ikuspuntu eta esperientziatik. Nahiz eta herrialde denetan egon, oraindino hiri eta gune asko falta zaizkit ezagutzeko. Herrialdeak oso handiak dira, eta beti dago zerbait gehiago deskubritzeko. Beraz, orain nire asmoa da gehien gustatu zaizkidan herrialdeetara bueltatzea eta bertan denbora gehiago igarotzea. Lasaiago dena ikusi nahi dut, eta bertan ezagutu dudak jendeagaz berriro ere batzeko gogoak ditut. ◀



# Apirila

## Barrika

Apirilak 15, astelehena

**Irakurketa taldea**

17:30 | Udabatzela gelan

Gertuko elkarteak antolatuta.

Apirilak 24, eguaztena

**Ipuinaren ordua**

18:00 | Liburutegian

Izen-ematea telefonoz edo emailaz: 946 775 163

eta liburutegia@barrika.eus.

## Berango

Apirilak 20, zapatua

**Kontzertua: Noran**

19:00 | Berango Antzokian

Pop-rock talde honek Uribe Kostako eta

Busturialdeko bost gazte biltzen ditu.

Apirilak 21, domeka

**Antzerkia: Aparteko liburuak**

18:00 | Berango Antzokian

Ana Apika ipuin-kontalariaren saio berezia.

Apirilak 27, zapatua

**Antzerkia: Almazanean**

19:00 | Berango Antzokian

Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxagaren obra.

## Erandio

Apirilak 23, martitzena

**Akordeoi entzunaldia**

18:30 | Josu Murueta kultur etxean

Musika eskolako ikasleen emanaldia.

Apirilak 28, domeka

**Kanpomartxo eta Mintza Eguna**

Faoetan eta Altzagan

Berbotsek 30. Kanpomartxo ospatzeagaz batera,

Euskal Herriko mintzalagunak ere izango dira

Erandion, euskararen aldeko jaialdia ospatzeko.

Egitaraua, hiruka.eus-en.

## Getxo

Apirilak 17, eguaztena

**Bizkaiko Taldekakoa 2024**

19:00 | Algortan: Salem tabernan eta Azebarrin

Karidadeko masakistak eta LeartiBai taldeak

arituko dira bertsolari txapelketako kanporaketan.

Apirilak 19, barikua

**Baginaren bakarriketak**

19:30 | Muxikebarri Antzokian

Adin, arraza, maila kultural eta sozial ezberdinetako 200 emakumeri egindako elkarriketen emaitza.

Apirilak 26, barikua

**Kontzertua: Laguna Goons**

21:00 | Muxikebarri Antzokian

Getxon bizi den andaluziar jatorriko musikariak.

## Gorliz

Apirilak 20, zapatua

**Mini Green Series BTT frogak**

15:30-19:00 | Gazatza parkean

Benjaminak, kimuak eta haurrak arituko dira.

Apirilak 26, barikua

**Zinema: Adam**

18:00 | Sertutxenan

Genero ikuspegiko zine-foruma.

## Leioa

Apirilak 19, barikua

**Antzerkia: La sed del minotauro**

20:30 | Kultur Leioan

Elkar gurutzatzen diren istorioen arteko talka eder

bat eraikitzen du obra berritzaile honek.

Apirilak 20, zapatua

**Bizkaiko Taldekakoa 2024**

19:00 | Leioan

Troiako zaldia eta Leioatik Leioara taldeak arituko

dira bertsolari txapelketako kanporaketa honetan.

Apirilak 20 eta 21

**Txakomic**

12:30 | Mendibile jauregian

Jaialdi gastro-kulturalaren 4. edizioa.

Apirilak 24 eta 25

**Mendi Tour 2024**

19:00 | Kultur Leioan

2023ko BBK Mendi Film Festivaleko onena.

## Lemoiz

Apirilak 12, barikua

**Laburbira**

19:00 | Armintzako kultur etxean

Euskarazko zortzi film labor proiektatuko dituzte.

## Plentzia

Apirilak 17, eguaztena

**Berbaldea: Ingurumen hezkuntza**

19:00 | Goñi Portalen

Beatriz Antonen hitzaldia.

Apirilak 25, eguena

**Antzerkia: Ametsen mundua**

18:00 | Goñi Portalen

Zapatari batek zapatak saltzen ditu, baina ezin ditu edonork jantzi; ausarta, sentibera eta burua erabiltzen jakin behar da.

Apirilak 28, domeka

**Plentzia Truk azoka**

11:00-15:00 | Ontziola plazan

Bigarren eskuko objektuen salmenta.

## Sopela

Apirilak 18, 19 eta 20

**Korto Express**

Sopelako Kuadrillak film laburren lehiaketa

berri antolatuko dute; informazioa,

hiruka.eus-en.

Apirilak 19, barikua

**Hitzaldia: Sopela guztientzako udalerrria al da?**

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Begoña Benito del Valle eta Soko Sanchez

dibertsitate funtzionalaz arituko dira.

Apirilak 20, zapatua

**Barinatxe Txistu Taldearen**

**25. urteurrena**

11:30 | Udaletxeko plazaatik

Kalejira herrian zehar, Bizkai osoko 70

txistularigaz. Ostean, hildako bazkideei

omenaldia.

Apirilak 27, zapatua

**Esaera Zaharren**

**29. Txapelketa**

11:00 | Udaletxeko plazaatik abiatuta

Izen-ematea eta informazioa: zaharrak@aek.eus.

Apirilak 28, domeka

**Nazioarteko Dantza Eguna**

12:00 | Zipiriñe ikastetxean

Arima Dantza Eskolako dantza-erakustaldia, eta

ostean, HQPC proiektu kolektiboa.

## Urduliz

Apirilak 14, domeka

**Tailerra:**

**Haurtzaroko basoa**

10:00 | Urdulizko kultur etxean

Familia-tailerra basoen osasuna ezagutzeko.

Apirilaren 15etik 21era

**Urez Ur Fest**

Urdulizko kultur etxean

Ozeanoakaz lotutako erakusketak, hitzaldiak eta

hainbat jarduera. Programazioa, hiruka.eus-en.

Apirilak 20, 17ra

**Bizkaiko Taldekakoa 2024**

19:00 | Urdulizko tabernetan

Pirata bertso-taldea eta Durangalduak taldeek

jokatuko dute bertsolari txapelketaren

kanporaketa hau.

# TXAKO *mic*

**Apirilak 20—21**  
Mendibile Jauregia (Leioa)

**Apirilak 27—28**  
Txakolin museoa  
Txakolingunea (Bakio)

*Marrazketa Zuzenean  
Dastaketak / Showcooking  
Tailerrak...*



Informazioa eta erreserbak  
[bizkaikotxakolina.eus/txakomic](https://bizkaikotxakolina.eus/txakomic)

## Lehen/Orain **Leioako Avanzada errepidea obretan, 80ko hamarkadan**



ITURRIA: LEIHOA.INFO

## Uribitakora



**TESTUA**  
Beñat Vidal  
Gurrutxaga

**DOINUA**  
Gogoan daukat  
ez du aspaldi

**ARGAZKIA**  
Jorje Perez

## Fasmidoak, agur

*Mila modutan deitzen nauzue baina zein dut nik izena? Nire itxurak ez du ageri bene-benetan naizena. Ez gutxietsi, inola ere, nigan dudan ahalmena eta ez ahaztu aintzat hartzea begien bistara dena animalien erresumako kamuflajerik onena!*

*Ezkutukoa, eraginkorra ni naiz polizia peto eta ertzaintzak kontratupean nauka langile zinpeko, pneumatikoen marrazkiaren sakonera neurtzeko. Eta ez badu zorrotz betetzen legeak gutxieneo ezarritako neurria, deitu eta isuna jartzeko.*

*Kontratupean esan dut, baina kontratua zertarako? Ez ei zitzaidan bizi osoan ezertxo ere faltako... Baina zer da, ba, bizi puta hau, txapa, kautxo eta asfalto... Azken gurpil hau neurtu dut, baina gaur ez dut egingo salto. Atzera martxa sartuta dago eta agur betirako.*

**ALBE**

Algortako  
Bertsolari  
Eskola

## Marmitako Trap Banda



TESTUA: NAHIA MARTINEZ GONDRA  
ARGAZKIA: MARMITAKO TRAP BANDA ▶

**E**uskara eta trapa elkartzeko apustua egin gura dute Aitorrek, Guillek, Julenek eta Iñigok, Uribe Kostako Marmitako Trap Bandako kideek. Barrika, Berango, Plentzia eta Bilbokoak izan arren, euren abestietan Urdulizi kantatzen diote beziki, entseguak bertan egiten dituztelako eta elkarregaz aurretiaz izandako musika taldeak bertan sortu zirelako ere. Duela sei hilabete hasi ziren oholtzetara igotzen, eta, orduetik, ez dira gelditu: gogotsu eta pozik daude euren proposamen artistikoa publikoaren aurrean erakusten jarraitzeko.

**Nondik dator Marmitako izena?** Taldearentzako garrantzi handirik gabeko izena nahi genduan, eta Guille eta Iñigo marmitakoagaz zorutzen direnez, izen hori erabaki genduan. Beraz, ez da hausnarketa sakon baten ondorio. Gainera, jendeari arreta pizten dio «marmitako» eta «trap» berbak elkarregaz ikustek.

**Duela gutxi abiatu zineten taldeagaz. Nola-koa izaten ari da hasiera?** Egia esan, proiektuak urte bi inguru daroaz bizirik, zuzeneko espektakulua ondo prestatu eta gure arteko ulermen musikala sakon landu nahi izan doguzalako. Prozesu nahiko iteratiboa izan da, eta landutako hainbat abesti bidean lotu dira, zuzenean transmititu nahi dogun sen-



**«Futbol kamisetak daroaguz barregarria delako, baina baita gure influentziak edo sustraiak erakusteko ere: Euskal Herria eta Argentina»**

MARMITAKO TRAP BANDA

tsazioen eta abestien bateragarritasuna asko zaintzen saiatu garelako.

**Nola definituko zenukete zuon estiloa?** Gure estiloan musika garaikideko genero askok jolasten dabe elkarregaz: R&B, funk, soul, jazz, rap, trap, elektronikoa, etab. Egia esateko, gatz daukagu berba batez hori guztia deskribatzeko. Hala ere, Argentinako trap influentzia dugu nagusi, Ca7riel, Paco Amoroso eta Duki moduko artisten eskutik. Bestalde, Snarky Puppy, Cory Henry, Anderson Paak, The Free Nationals, Victor Wooten eta aipatutako estiloen barruan dabilen AEBetako musika modernoaren eragin itzela dugu.

**Zuon estetikari dagokionez, futbol taldeen kamisetak daramatzazue. Zergatik?** Egia esan futbol kamisetak daroaguz barregarria delako baina baita gure influentziak edo sustraiak erakusteko ere: Euskal Herria eta Argentina.

**Euskarak zer nolako presentzia du zuon abestietan?** Momentuz, euskara, gaztelania eta ingelesa nahastu doguz abestien letretan. Guk sortutako hiru kanta argitaratu nahi doguz aurkezpen modura, eta hortik, ikusiko dogu. Argi dekogu Euskal Herriko gazteriari (eta edonori) zuzeneko musika modernoa, euskalduna eta landua eskaintzeko gai garela, eta horretara gatoz. Honez gain, Uribe Kostako euskararen elementuak erabili nahi doguz; etxeko euskararen aldeko apustua da guretzako. ◀

Irantzu Varela eta Maria Gorosarri Feminismoaren hutsaltzeaz

# «Feminismoak marko-teorikoa eta borroka-estrategiak behar ditu»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

**G**ero eta gehiago entzuten dira ka-lean, eta askotarikoetan, berdintasunaren izenean harrotasunez feminista izendatzen diren subjektuak, eta *girl power* hitzak darabilten diskurtsoak nabarmendu dira sare-sozialetan. Aitzitik, hortik haratago, hausnarketa sakonago baterako lekua al dago? Borroka feminista hutsaltzeko arriskuan al gaude? *Contra la banalización del feminismo* liburuaren idazle Maria Gorosarri eta Irantzu Varela kazetariak feminismoaren hutsaltzeaz aritu ziren martxoaren 19an, Algortako Fadura kiroldegian, Getxon.

**Zein faktorek eraman gaituzte feminismoaren hutsaltzera?** MARIA GOROSARRI: Euren burua feministatzat hartzen duten pertsonen kopurua ikaragarri handitu da azken hamar urtean. Ordura arte, «paradoxa feminista» izenarekin ezagutzen zen fenomenoak: feminismoaren helburuekin bat etorri baina euren burua feminista moduan ikusi gura ez zutenak. Orain, denok feministak gara, hau da, identitate bihurtu da, baina horrek ez du esan gura feminismoa egiten gabiltzanik.

IRANTZU VARELA: Feminismoa hutsaltzeko arriskuak zerikusia du hartzen ari den indarrarekin eta herri-kulturaren parte izaten hastarekin. Orain, badirudi mundu guztia feminista dela eta mundu guztia gai dela ikuspegi feministatik edozein gairi buruzko iritzia emateko, baina ez da horrela. Feminismoak tresna teorikoak eta borroka-estrategiak sortu ditu, eta, horretarako, markoa eta kalea behar dira.

**Beste lekuakaz alderatuz, Euskal Herrian identitate feminista jendartean gehiago txertatuta dagoela esango zenukete?** M. G.: Mundu osoan feminismoa zabaldu bada ere, Euskal Herrian, ETaren desagerpenarekin, espazio sinbolikoa feminismoak hartu duela uste dut.

I. V.: Kontuz «euskal oasian» sinestearekin. Euskal Herrian mugimendu feminista indartsu bat dago, esparru teoriko handikoa eta kale askokoa, baina oso gizarte patriarkala gara. Gero eta gutxiago, baina asko dugu borrokatzeko. Eta deseraikitzeke daude «bizitza osoko» gizon euskaldun eta gudari asko ere.



I. Varela eta M. Gorosarri Fadurako kiroldegian eman zuten berbaldia. HODEI TORRES

## Zapalkuntza guztien aurka

«Ez dago feminismoak intersektionalitate gabe. Ezin zaie zapalketei banan-banan aurre egin. Zapalkuntza-sistemak elkarren mendekoak eta banaezinak dira. Horregatik, borrokak zapalkuntza guztien aurka joan behar dira aldi berean»

**Askotan definitu izan da, batez ere instituzioetatik, feminismoa berdintasunaren sinonimoa dela. Ados zaudete?** M. G.: Gizonen pareko izatea esan gura dute, baina gizon guztiak ez dira berdinak eta ez daukate postu bera. Zein gizonekin parekatzea litzateke?

I. V.: Berdintasuna diskurtso hutsa eta aringarria da. Kontua ez da erdibana banatzea, baizik eta bidegabekeriekin, gehiegikeriekin eta zapalkuntzekin amaitzea. Hori sistemaren aurkako feminismo iraultzaile batekin egiten da. Erakundeetatik egin nahi duenak –eta ahal duenak– barrurantz eta kanporantz borrokatu beharko du.

**Zer egin dezakegu feminismoaren hutsaltze horren aurka? Zein estrategia balia ditzakegu?** M. G.: Identitateaz gainera, gure egunerokotasunean ere feminismoa egitea. Gure bizimodua aldatuz, gure testuingurua bizigarriago egin dezakegu. Emakumeen aurkako indarkeriari, gainera, modu kolektiboan erantzuteko jarrera gure bizimoduan txertatu behar dugu, inguruko edonoren erasoei erantzuteko.

I.V.: Bada, kalea eta marko teorikoa. ◀



POLITEKNIKA  
TXORIERRI

# HEGAN

egiteko aukerak

Formación Profesional  
y Bachillerato

**Lanbide Heziketa  
eta Batxilergoa**



Eman izena:  
[politeknikatxorierri.eus](http://politeknikatxorierri.eus)



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA SAIA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



HETEL

## Korrika bukatuta, orain zer?

**NAHIKARI AYO** Irakaslea



**B**este urte batez, itzela izan da! Uribe Kosta eta Euskal Herria euskaltzalez beteta, euskararen alde korrika. Adrenalina txutea izaten da hainbeste jende ikustea gure hizkuntza babesten.

1982an jaio herritan, gurasoek karroan eraman ninduten Korrikara, eta, ordudanik, ez dut kale egin. Hasierak ez dira samurrak izaten, eta gurean ez zuen hainbeste jende parte hartzen. Garaiak aldatu direla ematen du. Zorionak Korrikara batu zareten horiei!

Asko eta asko batu dira, poztekoa da. Zenbat gazte batu ziren Korrikara, haien artean gaztekeraz sutsuki ari ziren bitartean? Korrikatik irtetea, zenbat hasi ziren haien artean gaztekeraz? % 95 batean, ziur nago euskaradunak direla (gaitasuna alde batera utzi dezagun, erabilerak garrantzia handiagoa du, nire uste apalean), baina zergatik ez dute erabiltzen?

Panoramixek erromatarrak garaitzeko edabe magikoa zuen, baina nork du gazteek euskaraz egiteko edabea?

Izan gaitzen euskaldun, euskalakari. Eman diezaiogun euskara elkarri! Klika egin dezagun gure hizkuntza ohituretan. Eta batez ere, harro herri izan gaitzen, etorkizunean, gure hizkuntza mingainean uneoro daraman herria.

## Harrotu eta trinkotu

**JOSU ESNAOLA** Helduen euskara-irakaslea



**A**urton martxoan egin dugu Korrika. Inoiz baino jende gehiagok parte hartu duela esan dute antolatzaileek, pantailen bidez jarraitu dutenak ere aurrekoetan baino askoz gehiago izan omen dira. Harro egoteko moduko datuak.

Harrotzekoa da, era berean, Korrika aurrera eramateko AEK-kideek eta herrietako batzordeetan parte hartu duten herritarrek egindako lana. Horri esker, herri askotan inoizko jarduera gehien izan dugu euskaraz, bai kulturalak bai ludikoak ere. Zuek zarete, erdaren zaparradapean itoko ez bada, euskarak bizirauteko, eta are gehiago hazteko, beharrezkoa duen lur harroa.

Alabaina, ez gaitzen gehiegi harrotu. Arrakastaren aparra lehenera etorriko da, eta aurrera egitekotan, pausoa motelduta txiri-txiri jarraitu beharko dugu bakoitzak bere soluan euskara ongarriz eta jorratzen.

Horretan dabilta, besteak beste, asterik aste berba-taldeetan elkartzen diren euskaldunak, apal-apal. Apirilaren 28an, Kanpomartxo jaiarekin bat eginda Erandion elkartuko gara Euskal Herri osoko lagunak harremanak zabaltzeko eta trinkotzeko. Ez du Korrikak beste lagun elkartuko, ez du Korrikak duen oihartzuna izango, baina harro egoteko moduko izango da.

# MIREN GORROTXATEGI

Elkarrekin Podemoseko lehendakari gaia



Kontsultatu gure programa hemen:  
[mirengorrotxategi.eus](http://mirengorrotxategi.eus)



## AUKERATU

## EZKERRA

## BOZKATU

elkarrekin  
**Podemos** | Allianza Verde



Euskararen baratzea... ezagutzuz aldatzea! Joseba Santxo



# Zabaldu daigun

**H**erritik sortu zinalako maite zaitu herriak!». A zer berba politik **arestian** ozenki entzun direnak antzinako baskoien hizkuntzan antzinako **tartesostarren** lurraldean! Bihotz zuri-gorriko **jende oste** alaiak behin eta berriro abestu ditu Jon Antton Zubikarai Erkiaga ondarrutarrak Athleticen ereserkirako 1983an idatzitako hitzak. Baina abesti horren atzean historia bitxia dago eta hemenixe kontatuko dugu.

1913ko abenduaren 29a zen eta Teresita Zazá **tonadillera** cácerestarrak (*Txingurriren* probintziakoak, alegia) Bilboko San Franciskoko Vizcaya aretoan eman behar zuen kontzertua. Entzunareto hari **kuplearen** 'katedrala' esaten zioten orduan. Errepertorioan *La Canción del Alirón* zekarren Teresitak. Abesti hura madrildarrentzat sortua zuten Filipinetako Álvaro Retana letragileak eta Gaspar Aquino musikariak, eta amaierak hone-laxe zioen: ¡*Alirón, alirón!* ¡*Pom, pom, pom!* Kontua da zati hori kantatzean bertan ziren entzule batzuek leloari letra aldatu ziotela unean bertan, Luis Izeta (Miquel Izeta politikari katalanaren **osaba zaharra**) Athleticeko orduko kapitainak hauspotuta: *Alirón, alirón, el Athletic campeón!* Bat-bateko ateraldi hura gustatu egin zitzaion Zazári, hainbestearaino eta letragileari abestiaren hitzak Athleticen omenez egokitze eskatzeraino. Eta era xelege horretara sortu zen Athleticen lehenengo ereserki ofiziosoa gaztalaria garbian: *En España entera triunfa...*

1950ean Los cinco bilbainos izeneko **bilbainada** abestaldeak ereserki berri bat eskaini zion Athletic, Timoteo Urrengoetxearen musikarekin eta Goyo Nadalen hitzekin, hura ere gaztelania hutsez: *Tiene Bilbao un gran tesoro...*

1982an, baina, Carmelo Bernaola musikagile otxandiotarrari enkargua eman zioten Athleticentzako ereserki berria egiteko. Bernaolak, pieza berri bat sortu beharrean, aurreko tradizioei begiratu zien eta hibrido bat atondu zuen; batetik, Retana eta Aquinoren *Aliron*, eta bestetik Feliciano Beobide tolosarraren *Altza gaztiak!* **biribilketa** (pieza hori Mendigoizaleen ereserkia izana zen lehenago, eta Jose Olaizola hernaniarraren *Aupa mutilak* obran oinarritu zen). Hitz mandatu Zubikarairi egin zion Bernaolak, jarraibide zehatzak emanda: hitz errazak, adierazpen argiak eta euskara hutsez. Euskal ereserki berria 1983ko martxoaren 30ean estreinatu zen goraino betetako 'katedralean'.

Kontuak kontu, mende pasatxoan Espainiari begirako himno erdaldunetik Euskal Herriari begirako ereserki euskaldunera pasatu gara. Ez gara makalak! Orain 'mutilak' esaten den zatietan 'neska-mutilak' sartzea baino ez dugu falta, gabarra ukatu zitzaie lehoi emeak ere kontuan har ditzagun gure kanta saioetan. ◀

## Berba azoka

### Arestian

Orain dela gutxi, aspaldi ez dela.

### Tartesostar

Tartesostarrak Tartessos kulturaren eroale eta zabaltzaileak izan ziren, grekoen eta feniziarren garaian egungo Huelva, Sevilla eta Cádiz probintzien artean kokatu zirenak, Guadalquivir ibaiaren inguruan.

### Jende oste

Jende multzo handia.

### Tonadillera

Tonadillak abesten dituenak. Tonadillak Espainiako abesti tradizionalak ziren, jatorri arabiarrekoak, eta tonu zirikatzailekoak.

### Kuple

Espainiako musika mota da, frantziar jatorrikoa, estilo arinekoa eta hitzetan gatza eta piperra dituenak.

### Osaba zahar

Aitonaren anaia edo amonaren neba.

### Bilbainada

Bilbo aldeko abesti mota herrikoa eta tradizionala da, nagusiki gaztelaniazkoa.

### Biribilketa

Euskal soinua, kalez kale ibiliz dantzatzen dena; kalejira.



Carmelo Bernaola

Teresita Zazá

Jon Lopez eta Uxue Hernandez Leioa Waterpolo

# «Haria ez etetea da gure helburua»

ANDER ZARRAGA ▶

**L**eioa Waterpolo fase erabakigarrian dago, apirilaren 27ra bitartean jokatuko dituzten partidetan jakingo baitute mailari eutsiko dioten ala ez. Egoera horri eta taldeari buruz gehiago jakiteko Uxue Hernandez entrenatzaile eta jokalaria eta Jon Lopez entrenatzaileagaz egon gara.

**Nolakoa izango da Waterpoloko Lehen Maila mantentzeko borroka?** JON LOPEZ: Ez da erraza izango, aurkari indartsuak ditugu eta partida batzuk etxetik urrun jokatu behar ditugu, baina, behintzat, martxoan jokatutakoak irabazi genituen eta, beraz, momentuz ondo gabiltza.

**Nolakoa da gaur-gaurkoz lehen taldea?** UXUE HERNANDEZ: Aurtengo taldea izugarria da: adin askotako jokalaria ditugu, gazte asko igo dira eta oso harreman ona daukagu gure artean, igerileku barruan zein kanpoan. Gainera, egoera zail honetan egoteak gehiago batu gaitu. Jokalari gehienok leioztarrak edo ingurukoak gara, eta horrek ere laguntzen du.

**Uxue, zuk nesken haurren eta kadeteen taldeak ere entrenatzen dituzu, nola bizi duzu hori?** U. H.: Denbora asko pasatzen dut igerilekuan, batzuetan arratsalde osoak, baina asko gustatzen zaidanez, ez dit ardura; ni pozarren nator. Entrenatzen ditudan neska gehienak txikitatik daramate taldean, klub honek asko harrapatzen baitu, eta nire ilusiorik handiena izango litzateke taldean jarraitzea eta etorkizunean nigar jolastea lehen taldean.

**Taldearen ezaugarrietako bat harrobi indartsua duzuela da, ezta?** J. L.: Hau benetako harrobiko klub bat da, hasieratik horrela egin izan dugulako ere. Lehenengo taldean beti egoten dira aldaketak, ez baikara profesionalak, eta heltzen da momentu bat lanagatik edo familiaragatik ezinezkoa dela hemen jarraitzea. Zorionez, harrobian hasitako askok lehen taldean amaituko dute. Harria ez ete-



Leioa Waterpoloko neskek 2011tik jokatzten dute waterpoloko Espainiako Lehen Mailan.

## Zer eman dizu waterpoloak?

«Klub hau familia bezalakoa da. Igerilekura heldu eta entrenatzaileak eta taldekideak nagoenean, kanpoko arazoak ahaztu egiten ditut»

UXUE HERNANDEZ  
LEIOA WATERPOLOKO JOKALARIA ETA  
ENTRENATZAILEA

«Nire bizitza waterpolorik gabe imajinatzea zaila iruditzen zait; lau urte nituenetik daramat hemen. Egindako lanaz oso harro nago, epe luzerako zerbait egin nahi nuelako eta hazi hori loratu egin delako. Etorkizunera begira ere panorama ona da: ume txikiak, familiak, entrenatzaile berriak eta ilusioa daude»

JON LOPEZ  
LEIOA WATERPOLOKO  
ENTRENATZAILEA

tea da gure helburua. Hainbat txapelketatan egon gara, eta emaitza oso onak lortu ditugu, baina egindako lanaren ondorioa da hori.

**Eta harrobia bermatuta dago?** U. H.: Bai, uste dut baietz. Jokalari asko daude beheko kategorietan, bai nesken eta bai mutilen taldeetan, eta helburu horregaz jarraituko dugu, beraiek ere etorkizunean lehen taldean egon daitezten. Nagusiok jokatzten dugunean ilusioz beteta etortzen dira gu ikustera. Txikitari izan nituen erreferentziatzko jokalaria bezala, orain, beraiek gu jarraitzen gaituzte eta gugaz jokatu gura dute.

**Leioan badago waterpoloarekiko zaletasun berezirik?** U. H.: Egia da hemen ez dela asko jokatzten den kirol bat, baina Leioan bi talde gaude: Askartzakoa eta gu; beraz, zerbait berezia egongo da.

J. L.: Bai, gainera, harrobi esanguratsua ditugu biok, gu ia 200 pertsona gabiltza taldean. Hori asko da dauzkagun azpiegiturak ikusita, Sakonetako igerilekua oso txikia baita, bai waterpoloan jokatzeko, baita leioaztarren ere, hemen ez garelako sartzen igerilekua erabili nahi dugun guztiok. Horrek meritu gehigarria ematen dio egiten dugun lanari. Herri batzuek bere kirol fetitxeak izaten dituzte, eta nik uste dut. ◀

M. Veloso, B. Merino eta L. Somarriba Dragon Boat

# «Laguntasuna eta indarra eman digu kirol honek»

**Getxoko Dragon Boat taldeko kide gehienak bularreko minbiziko bizirauleak dira, eta kirol honen bidez euren osasun mental eta fisikoa hobetzen dute. Las Dragonas izenagaz aski ezagunak dira eskualdean.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

**D**ragon Boat-a 2.000 urte baino gehiago duen asiar jatorriko kirol nautikoa da eta, egun, mundu osotik hedatu da. Itsasontziaren egitura bereziari esker, ikusi dute mugimendu errepikorra praktikatzeko onena dela. Hala, Luzma Somarriba, Mercedes Veloso eta Begoña Merino kideakaz elkartu gara kirol hau nola bizi duten gertutik ezagutzeko.

**Nola sortu zen Getxoko Dragon Boat taldea?** LUZMA SOMARRIBA: Kantabriako piragua lehiaketa batean dragoi itxurako itsasontzi bat ikusi genuen. Nire senar Alfonso eta biok hitz egin genuen itsasontzi horretako emakumeakaz, eta azaldu ziguten bularreko minbiziko bizirauleak zirela, eta emaitza positiboak lortzen ari zirela kirol horri esker. Orduan, erabaki genuen hemengo emakumeen alde zerbait egin behar genuela. Alfonso 9 urte zituenetik piraguista denez, bion artean antolatu genuen taldea. 2021eko ekainaren 9an, dragoira sartu ginen lehendabizi: lau emakume eta entrenatzailea ginen. Hiru hilabetean bi dragoi osatu genituen. Egun, 90 emakume izatera iritsi gara.

**Zer ematen dizue kirol honek?** MERCEDES VELOSO: Batasuna, laguntasuna eta indarra guztiagaz hausteko. Ihes egiteko eta aldi berean konektatzeko momentua da. Nahiz eta batzuk tratamenduan egon, beste batzuk operatuta eta beste batzuk sendatuta, denak bat gara.

BEGOÑA MERINO: Niri poza ematen dit. Ez zaude zure burbuilan sartuta. Kirolaren, egoera pertsonalaren eta osatzen duzun taldearen arteko konexioa eta lotura da.

L. S.: Emakumearen ahalduntzerako ere balio du. Askotan, euren burua ezer maite ez



Mercedes Veloso, Begoña Merino eta Luzma Somarriba kideak. NAHIA MARTINEZ GONDRA



**2023ko denboraldian, Espainiako Dragon Boateko batzorde paraolimpikoak zilarrezko Dingonatura zigilua lortu zuen egindako lanari esker. Urrea lortzeko fisioterapeuta bat falta zitzaien eta, aurten, lehen postua irabazten ahaleginduko dira.**

duten pertsonak datoz, eta egunez egun kirolaren eta taldearen bidez ahalduntzen ari direla ikustea benetan polita da.

**Zergatik uste duzue garrantzitsua dela horrelako ekimenak egotea?** L. S.: Pertsona batzuk gaizki pasatzen ari direlako eta ez dutelako irtenbiderik ikusten. Horregatik, hemen gaude gu laguntzeko. Beti diogu berdina: hemen mundu guztia sartuko da edo ez da inor sartuko! Beraz, denok eskutik helduta goaz.

B. M.: Kide izatearen sentimenduak asko laguntzen du. Nire ustez, ia denok osasun-arazo hori izateak erakusten dizu irekitzen eta jendeari laguntzen.

**Hobekuntza fisikorik nabaritu duzue?** B. M.: Azken azterketan, onkologoak galdetu zidan ea zer aldatu nuen nire bizitzan, oso aktibo ikusten ninduelako eta fisikoki askoz hobeto nengoelako. Dragoian hasi nintzela esan nion, eta jarraitzeko esan zidan. Urtebete daramat hileroko azterketak egiten, eta, orain, hiru hilean behingo azterketak egingo dizkirate. Ongizate mentalaz gain, fisikoki asko lagundu dit Dragon Boatak.

M. V.: Gorputzak berehala jasotzen du mentalki nola zauden. Horregatik, oso garrantzitsua da edozein gaixotasunerako ahalik eta jokabide onenagaz egotea. Dragon Boatean zoriontsuak gara. ◀

# Nola egiten dituzu finantza-eragiketak?



**FRANCISCO JAVIER ANGULO**  
PLENTZIA

Nik dena mugikorragaz egiten dut, eta digitalizaziora egokitu ahal izan naiz. Halere, bankuek gero eta zerbitzu txarragoak ematen dituzte, eta adineko jendea erotu egiten da. Getxoko auzo periferikoetan sukurtsalik gabe geratzen ari dira; lotsagarria da. Gainera, goizero ilara amaiezinak daude bulegoetan.



**EDUARDO GARCIA**  
GETXO

Taberna bat dut eta txanponak hartzeko soilik joaten naiz banketxeetako sukurtsaletara. Digitalizaziora ondo moldatu naiz, izan ere, Internet edo kutzazainen bidez operazioak egin baditzaket, ez dut ilararik itxaron behar. Baina ulertzen dut adineko jendeak arazo gehiago dituela hauetara moldatzeko.



**AROA SOTELO VELASCO**  
LEIOA

Eragiketa guztiak egiteko mugikorreko aplikazioa erabiltzen dut normalean, ohituta nago-eta. Hala ere, duela gutxi nire bankubulegora joan naiz, paper batzuk sinatu behar nituelako, eta ohartu nintzen hitzordua hartzea bereziki zaila dela. Izan ere, astean behin soilik har daiteke zita arrastian.



**JAVI ARONDO**  
ALGORTA

Nirezat bankuak tresna bat dira, eta bulegoetara etorri behar bagara kontuak egiteko, mantentze-kuoten eta komisioekin horien mantentzea ordaintzen dugu. Kontua da, orain, derrigortzen gaituztela gestioak guk geure kabuz egitera mugikorretik, baina berdin kobratzen jarraitzen digute.



**RAKEL TERCEÑO**  
GETXO

Nik txartelarekin egiten ditut kontu horiek, kutzazainetan. Transferentziak-eta egiteko mugikorrarekin edo ordenagailuan egiten ditut beti, eroso iruditzen zait. Ordaintzeko orduan ere txartelarekin egiten dut, erosoagoa egiten zaidalako, hala ere, batzuetan nahiago dut diruz ordaindu.



**ROSA GARRIDO**  
ALGORTA

Ia guztia online egiten dut, enpresa bat dut eta kontu guztiak online daramatzat, baita etxeko gauzak ere. Ez dut arazorik izaten, eta noizbait zerbait ez badut ulertzen edo arazoren bat badut, telefonoz deitu eta konpontzen didate. Hala ere, ulertzen dut jende nagusiarentzako zailagoa izan daitekeela.



**JESUS GONZALEZ**  
ALGORTA

Ez naiz oso ondo konpontzen, nahiko traketsa naiz kontu hauetan, beraz, nire anaia nagusiari edo amari galdetu behar diet. Hala ere, nahiago dut gauzak Internetetik egitea, etxetik, erosoagoa egiten zait eta lasai egin ditzaket. Bankura etorri behar izan naiz gaur, baina azkar egin dut, ez zegoen ilararik.



**JONE GUENETXEA GOROSTIZA**  
GORLIZ

Online egiten ditut eragiketak; nahiko erreza egiten zait bankuek eskaintzen dituzten aplikazioak erabiltzea. Halere, batzuetan, apur bat trakets sentitzen naiz gauza zehatz bat bilatu behar dudanean webgunean. Beraz, ulertzen dut adinekoentzako are zailagoa izatea eta batzuk ondo ez moldatzea.

**Iker Galartza** Aktorea

# «*Vaya Semanita* saioko topikoeek nazka ematen zidaten»

TESTUA: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIA: DANI BLANCO ▶

**Defini ezazu zeure burua berba bitan.** Pazientea eta langilea.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?** *Quo Vadis* edo *Gladiator* pelikuletan egingo nuke; mahatsak jaten dituen enperadore maltzurra izango nintzateke.

**Zure haurtzaroko oroitzapen bat?** Lehengusuekin Amezketan arrantzan egitera joaten nintzenekoa; oso zoriontsua nintzela gogoratzen naiz.

**Badakazu ohitura txarren bat?** Asko ditut. Iratzargailuari behin eta berriro hamar minutu gehiago ematen diodala, adibidez.

**Eta aitor dezakezun bizioren bat?** Sagardoa. Asko gustatzen zait eta, batzuetan, bazkalorduan ere botila bat irekitzen dut.

**Zer edo nor eramango zenuke irla isolatu batera?** Igual bakarrik joatea onena. Eta zerbait eramatekotan, sagardo kutxa bat eramango nuke, erreskatatu bitartean edateko, garai bateko arrantzaleek ere eramaten zuten bezala.

**Gorroto duzun topikoren bat?** Ez zaizkit euskaldunoi leporatzen zaizkigun topikoak gustatzen. Nik *Vaya Semanita* saioan egin nuen lan, eta han erabiltzen genituen topikoek nazka ematen zidaten.


**Eta zein hutsegite ez zenuke sekula barkatuko?** Gorroto dut alferkeria, nahiago dut norbait kabroia izatea alferra baino; ezta lotsagabeak ere, askotan lotsagabeak alperrek ere izaten direlako.

**Badago herriz ere egingo zenukeen bidaiarik?** Bai, Greziara bueltatuko nintzateke. Ezkonberritan, oso gazte joan nintzen eta patxada gehiagorik bueltatuko nintzateke.

**Gogoko duzun Euskal Herriko txoko bat?** Amezketako minak gustatzen zaizkit; han bakea arnasten da.

**Jai ala nahiago duzu atsedena hartu?** Gustatzen zaizkit jaiak, baina nire egunerokotasunari atsedena komeni zaio.

**Oihukatu duzun azken aldia?** Antzerkian, baina bestela ez naiz builaka aritzen den horietakoa; ez du ezertarako balio, dena asaldatu eta aztoratzeko bakarrik. ◀



**Laburrean.** Aktorea eta gidolaria, ezaguna egin zen *Goenkale* teleaioan agertu zelako. 2006an, *Vaya Semanita* umorezko teleaioan egin zuen lan, eta horrez geroztik, *Euskolegas*, *Alli abajo*, *Irrikitown* eta *Irabazi arte* programetan aritu da, besteak beste. 2017an, Gure Zirkua martxan jarri zuen Joseba Usabiaga eta beste kide batzuek batera, eta, Tolosan eman zuten lehen ikuskizunaz geroztik, Euskal Herritik aritu da herriz herri. Gaur egun, Zuhaitz Gurrutxaga aktoreagaz batera, *Almazanean* obra antzezten ari da.

# Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA



L		P	A	S	
A	E		P	T	L
	A			L	S
T	S	L	E		P
E	L		S	P	T
	P	T		E	A

## Sudoku

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak PASTEL hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (P, A, S, T, E eta L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.





AURREKO  
SOLUZIOAK





## Aldea dago

Urtebetetzeetan abesten dugun kantu ezaguna Kaxianorena da, eta leloa buruz dakizu:

Zorionak zure urtebetzean,  
Zorionak ta urte askotarako,  
Zorionak belarritik tiratzean,  
Zorionak ta musu bat zuretzaiko.

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia eta abestiaren lehen ahapaldia azalduko zaizu. Horretarako, erabili beheko alfabetoa.

### HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



## Pastela

Maripurtzili atsegin zaion bizkotxoak honako osagai hauek ditu: hiru arrautza, ontzi bat irin, ontzi bat gozoki, ontzi bat olio, zorrotxo bat legamia, pota bat jogurt, limoi bat eta txokolatetzko krema. Zenbat bizkotxo aterako zaizkio?

## Askari oparoa

Hau da urtebetetze festa oparoa! Hemen gauza asko dago jateko! Irudi honen eta alboko bere islaren artean dauden aldeak aurkitu behar dituzu. 11 dira guztira.

# hirukalagunen txokoa

# Sari ederrak eskura!

Zozketa

## Jazz kontzertu paregabea

James Brandon Lewis saxojotzaile ospetsuak Pio Lindengarden homenezko kontzertua eskainiko du bere bandagaz Muxikebarrin, apirilaren 27an, 20:00an. Galduko duzu?

Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 21a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



Zozketa

## Gozatu Gernika dantza ikuskizunaz

Martin Harriague koreografoaren azkenengo lana ikusgai egongo da maiatzaren 4an Muxikebarriko taula gainean, 20:00etatik aurrera. Leku bat zuretzat izatea gura duzu?

Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 21a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



Zozketa

## Goazen etxera, untxitxo liburua

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 0 eta 3 urte arteko txikitxoentzako liburu eder hau zozkatuko dugu gure irakurleen artean. Zeren zain zaude zurea izan dadin?

Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 21a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



## Zelan egin HIRUKAlagun?

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)  
**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)  
**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke,** Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



# KANPOMARTXO '24 30 urte!

## Faeta!

Apirilaren  
28an



*Kotxerik ez!  
Autobusean etorri!*

11:00 Musika eskolako trikitilari  
eta panderojoleak

11:30 Euskal dantzak: Goi-Alde,  
Trabudu eta Uztargi

13:30 Bertsolariak: Onintza Enbeita  
eta Peru Vidal

11:00-14:00  
16:00-18:00 Puzgarriak

14:45 Herri bazkaria eta  
mintzalagunekin bat egitea

16:00 Astrabuduko Kantagunea eta  
Erandioko Kantagunea

17:30 Erromeria: Luhartz  
taldearekin



### Antolatzailea



BERBOTS  
Erandion Euskaraz!  
Erandioko  
Euskaltzaleen  
Topagunea

### Laguntzaileak

Fabuetarrak  
Musika Eskola  
Goi-alde  
Trabudu  
Uztargi  
ALBE

Astrabuduko Kantagunena  
Erandioko Kantagunea  
Ategorri Institutua  
Curaso elkarteak  
Auzoko elkarteak  
Jai Batzordeak  
... eta beste hainbat

### Babesleak





# Umore Azoka

XXIV FERIA de ARTISTAS CALLEJEROS de LEIOA  
MAIATZAK 16, 17, 18, 19 MAYO 2024